



Antoniotaŕen
Esku-Liburua



970^o 7

M. - 16208

$\Delta TV. 6604$

R. - 8585

$$\eta^a = 10$$

Копия

• ANTONIOTAREN
ESKU-LIBURUA

pp. 13 Serie 4^a

ANTONIOTAREN ESKU-LIBURUA



AITA SAN PRANTZISKOREN
ANAIDIKO
JOSE MARIA AZKUE.
AITA PRAILEAK ERATUA


TOLOSA-N:
Mugerza anai-en etxean--(Editorial Guipuzcoana)
1923-garen urtean.

Nihil obstat
FR. ROMANUS ZULAICA

Imprimi potest,
FR. J. ANTONIUS URQUIOLA
M. Prov.

Victoriae 21 Junii 1923.
Nihil obstat,
LIC. PETRUS DE ANASAGASTI
Censor.

Victoriae 21 Junii 1923.
Imprimatur,
Gubr. eccus S. p.
DR. JOSEPH LEONTIUS O. DE ZARATE.



SARERA

Irakurle maite, San Antonio-zalea izan naiko dezu noski? Ala bada liburutxu onetan aurkezten zaizkizun bere onbideak ikasi itzazu, eta bere oñotsai jaraitu zaiezu.

Etzaite bildur izan, San Antonio aundia izanagatik antzezgarria da-ta. Bere onbideetan ezta bat bakarrik antzeztu ezdezakezunik: baldin egiz santua maite badezu, gauaz argiak txipeleta (1) bereganatzen duan bezela, onbide ciek beragana eramango zaituzte, eraskorak dira-ta; baiña ez xomoro ori bezela ere ta ilda geratzeko, bizmen indartsua emateko baik.

¿Nor da Jesus maite ezdezakenik? Jesus maitatzen berak erakutsiko dizu ba: eta Jesusgan daukazu egiazko bi-


(1) Mariposa.

zimenena: *Ego sum Via, Veritas et Vita.* (1)

Bestetik beriz ezta ongirik bere bitartez iritxiko eztezunik; beste Santuak oi-ez bezela danerako bitarteko jarria dirudi, eta ongi guztien emalea da. Alguztidunak mirari aundiak egiteko ala eman dio, eta Santu onen bidez ernatu naidu mundua bere lozortik, Zerura begiratu dezan eta sinismenaz sendotu dedin.

San Antonioren esku altsua zalan-tzan jartzen dutenak, Jaungoikoaren naia egiteko asmoz, bereganatu bitez, eta artzen dituzten esker onetzaz laixter aienduko dira zalantza oiek. San Antonio-zalea izan zaitez ba, berak bezela Jaungoikoaren Aintza edo *Gloria* bilatu zazu, eta Santuak lagunduko dizula ziur-ziur egon zaite.

(1) S. Joan. 14.



Antionotaia ta goiz-aratsetako

OTOITZAK

Jaungoikoa izaki guztien Egilea dala-ko Berari dagozkio izakien auren-emaitzak. Beraz Beroni eskeñi bear zaizkio eguneroko lenengo gogapenak, itzak eta eginkizunak, eta baita gure lenengo arenak zuzendu ere, ongi ta onspen guztiak bere esku zabaletik artzen ditugu-ta. Augatik goizean esnatzen zeran bezin laxter zure biotza zuzendu ezazu Jaungoikoagana, bear dituzum laguntzak eskatuaz, zure bizikeraren egin-bearak beteko dituzula aginduaz, zure naia Jesusenakin batuaz, eta eskeñ onak agertuaz. Orela bizi bazera, zure biztaldia otoitz iraunkoia izango da, bada San Antoniok dienez Jaungoikoaren naia gauz guztietan egiten duana beti oitzean ari da, eta otoitza zeruko ateak zabaltzen dituan giltza da.

Ur bedeinkatua artuta Gurutze egizu.

Gurutze Santuaren † señaieagatik, gure † etsaiengandik, zaitu gaitzazu †

gure Jaun eta Jaungoikoa. Amen. Aitaren eta Semearen † eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.

(150 eguneko barkapenak. Coll. Ind. P. Mocchegiani).

Egin dizkiguzun ongi guztiakatik eskerak agertzen dizkizugu eunki ta eunkietan bizi ta agintari zeran Jaungoiko Alguztidun oñi. Amen. (H. D.)

V. Jauna nere otoitza entzun ezazu.

R. Eta nere abotsa Zugana eldu bedi.

OTOITZA

Egun onen lenengo orduetara elduerazo gaituzun Jaungoiko Alguztiduna, Zure almenaz zaitu gaitzazu gaur pekaturen batean erori ez gaitezen; bestela gure itzak, gogapenak eta egintzak zure aginduak egitera zuzendu bitez. Auxe eskatzen dizugu, Zu bezela Jaungoikoa dalako, eunki ta eunkietan zurekin eta Espiritu Santuarekin batera bizi dan gure Jaun Jesukristo Beragatik. Amen. (H. D.)

Jesusen Biotz maitakoari.



¡O nere Jesús! Zure Ama Mariaren Biotz garbieren bidez, gauko nere otoitzak, lanak eta nekek eskeintzen dizkizut, Zure kontra egiten diran txarkerien ordañez eta zure Biotzak dituan nai guztietarako, Amen. (Kredoan).

Leku guztietan maite izan bedi Jesusen Biotza.

(100 eguneko barkapena egunean bein. Coll. Ind.)

Ama Mariari.

¡O nere Ama! ¡O nere Jabea! oso-
osorik eskeintzen natzaizu, eta dizu-
dan maitasunaren agiritzat ematen
dizkizuk gauko nere begiak, nere bela-
riak, nere mingaña, nere biotza, nai-
zan guztia. Zurea naizan ezkerro, ¡O
Ama ona! zure gauza bezela zaitu,
ta aldeztu nazazu. Amen. Iru Agur
Maria.

(100 eguneko bark. Coll. Ind.)

Salvea.



Aguń, Eregiña,
Ama erukiońa: gu-
re bizi, gozo ta
itxaropena, aguń.
Zure deiez gaude
Ebaren ume erbes-
tetuok: zuri aiezka,
antziz ta negarez
negań-erĩ onetan.
Ea bada, itzuli itza-
zu gure bitarteko

on ońek, itzuli gugana zure begi eru-
kitsu oiek, eta erbeste onen ondoren
erakus zaiguzu Jesus, zure sabeleko
Seme bedeinkatu ori. ¡O Biozpera!
¡O Erukioń! ¡O Maria Birjin gozoa!
Otoitz egizu gure alde, Jaungoikoa-
ren Ama Done ońek, Jesukristo gure
Jaunaren aginduak irabaz ditzagun.
Amen.

Arantzazun azaldu zĩñan Jaungoi-
koaren Ama ońban gabea nere alde
otoi-egizu.

(50 eguneko bark. Gaz. Gotz.)

Aingeru Zaindariari.



Nere Zaindari-
zeran Jaungoi-
koaren Ainge-
rua, goi-erukiak
zure ardurape-
an jaří nauen
ezkero, zaitu, la-
gundu ta zuzen-
du nazazu.
Amen.

(100 eg. bark. aldi bakoitzean. Coll Ind.)

Aitagure bat.

Aita San Joseri.

¡O Birjiña Maria guztiz Donearen
Senař garbi-garbia eta nere Zaindari
maite-maitekořa, Jose Santua! Oroitu
zaite laguntza eske zugana joan ta
zuk lagundu gabe iñor laga dezunik
eztala iñoiz entzun. Uste onekin in-
dařtua zugana natoř eta biotz-biotzez
zure eskuetan jařtzen naiz. ¡A gure
Salbagilearen Aita-ordekoa! gure oto-
itzak entzun gabe ez utzi ařen; bestela
erukiz arřtu itzazu. Alaxe.

(300 eguneko bark. egunean bein. Coll.
Ind.)



¡O Jose Santu doatsua! Jesusen Aita-ordekoa eta Maria beti garbiaren egiazko senarra, otoi-egizu gure alde ta gaur il-larrietan arkitu bear dutenen alde. Amen. (Aita gure bat.)

San Antoniori.

Otoi-egizu nere alde. ¡O Antonio doatsua! Jesukristok agindutako sariak artzera eldu nadin. (Aita gure bat).

Arats-Otoitzak.

Oeratu baiño len eguna nola igaro dezun aztertu ezazu, eta lotarako eratu zaitte: onelaxe:

1. *Eskeñak egin.* Egin dizkiguzu...

(Goizean bezela).

2. *Argitasuna eskatu.* Eskatu itzazu bear dituzun argitasunak zure utsegiteak ezagutzeko; begira nondik

eta nola datorzkizun utsegite ³oiek; edo ia zerbait onbidietan aurératu dezun:

3. *Azterkuna.* Esamiñatu zaite:

1. ¿Zertan utsegin dezu? Jaungoikoaren kontra, lagun urkoaren kontra, zure buruarekin, edo zure kontra. ¿Nola dijoa zure genio ori?...

2. ¿Pekatuko bidean ibili ote zera? ¿Zeroék naita ala ez?...

3. Egite onen bat egin ote dezu? ¿Zer?

4. ¿Ongien bat egiteko erarik galdu ote dezu?...

Ezertan utsegin ezpadezu emaiokazu Januari eskerak: bestela, utsegin badezu, batez ere pekatu larrien bat egin, damu zaite, ta uréngo egunerako asmo onak artu itzazu; eta esan:

Nere Jesukristo Jauna... ta gero:

V. Jauna zure eskuetan jartzen det nere anima.

R. Jauna...

V. Zuk erosi niñuzun egiazko Jaungoiko oék. †

R. Zure eskuetan jartzen det nere anima.

V. Gloria Patri...

R. Jauna zure eskuetan jaítzen det nere anima.

V. Zure begininiak bezela zaitu nazazu Jauna.

R. Eta zure egoen geizpean aldeztu nazazu.

OTOITZA

Aren-dagizut, Jauna, gela oneri ikustaldi bat egin dezaiozula; eta etsaiaren maltzurkeri guztiak emendik urutira aldendu itzatzu; zure Aingeruak bertan bizi bitez pakean zaitu nazaten, eta zure bendizioa gurekin beti egon bedi. Gure Jaun Jesukristo Beragatik. Amen. (H. D.)

(Beste otoitzak goizean bezela).

Ur bedeinkatua artuta Gurutze Santuaren... Aitaren eta...

Antionotarak

eta beste eginkizun onak

Jan aurretik esazu:

Onetsi gaitzazu, Jauna, guztiok, eta onetsi itzazu Zure Ontasunak emanda artzera goazen jaki auek.

(Aita gurea, Agur Maria ta Gloria.)

Betiko Gloriako Éregeak zeruko maian maikide egin gaitzala. Amen.

Jan-ostean

Eskeñak zuri eunki ta eunkietan bizi zeran Jaungoiko Algustinduna egin dizkiguzun on guztiakatik. Amen.
Aita gurea, Agur María ta Gloria.

Jaunak bere pakea digula.—Eta betiko bizitza. Amen. (H. D.)

Ezkiñakin batera agurñu ezazu iru aldiz Ama Maria. *Goizean, eguardian eta ilunabaréan.*

Jaunaren Aingeruak Mariari iragarri zion.—Eta Espiritu Santuaren egitez soñtu zuan. *Agur Maria...*

Ona emen Jaunaren mirabea.—Zurre itzak diotenez egin bekit. *Agur Maria...*

Eta Jaungoiko-Semea gizon egin zan.—Eta gure artean bizi izan zan. *Agur Maria...*

V. Gure alde otoi-egizu Jaungoikoaren Ama Done oñek.

R. Jesukristoren agintsariak iritxi ditzagun.

Otoitza

Ixuri ezazu, aŕen, Jauna gure bio-
tzetan, zure grazia, Jesukristo zure
Semearen Gizakundea Aingeruaren
esanaz ezagutu genduanok, bere Ne-
kaldi ta Gurutzaren bitartez, piztuera
aintzatsura eldu gaitez: Gure Jaun
Jesukristo Beragatik. Amen.

(100 eguneko barkapena egunian bein,
eta ilian barkapen osoa; egiazko damu-
tasunaz. Coll. Ind.)

Zazpi amaŕeko Agurta

Ama Mariari

Irugaŕengoak esaten duten bakoitzean
barkapen osoa irabazten dute. Irugaŕen-
go eztiranak ere bai Prantziskotaŕen eliz-
kizunen batean edo auekin esaten dute-
nean.

Baita zazpi atsegiñen jai-egunetan ai-
toŕtu ta Jaunaŕtuaz ere.—Ama Mariaren
beste jai-egunetan edo zortziuŕenaren ba-
ruan. Ilian bein larunbatero esaten du-
tenak. Eriotzako oŕduan, biztaldian saŕi-
tan esan oi-badute, aitortu ta Jaunartuta,
ta au ezin badute damuz *Jesus* aoaz edo
biotzez esanda. Beste egunetan barkapen
zatikiak asko ditu.

Amabost amaŕekoa Ama Mariak Do-
mingo Santuari erakutsi zion bezela, zaz-
pi Amaŕeko an Ama Mariak Berak gure
Anaidiko prailegai bati erakutsia da. Es-
keŕ aundiak iritxi izan oi-dira, mirari,

aundiak egin ere bai. Irakuñi San Prantziskoren Anaidiko edestia. Egunero ére-satu ezazu ba; batian ezin badezu, zatika berdin da.

(Pius X. vid. Acta O. Fr. M.).



Gurutze Santuaren... Nere J. Jauna.

Dñe. labia mea aperies.-- Et os meum anuntiabit laudem tuam.

Gloria Patri et... Sicut erat...

Ama graziazkoa, Ama erukioña, gure etzaiengandik zaitu gaitzazu orain eta gure eriotzako orduan. Amen.

Lenengo Misterioa. Jaungoiko-Semea gizon egitea. Aitagurea, amañ

Aguí Maria ta. Gloria Patri... Ama graziaskoa...

Bigarren Misterioa. Ama Mariak bere lengusu Isabel donari egin zion ikustaldia.

Irugarren Misterioa. Jesusen Jaiotza.

Laugarren Misterioa. Inu erregeen agur-egitea.

Bosgarren Misterioa. Jesus galdu ta Elizan arkitua.

Seigarren Misterioa. Jesusen Berpiztuera.

Zazpigarren Misterioa. Ama Maria Zerura jasotzea.

Azkenik bi Agur Maria Ama Mariak lurganean igaro zituan urtien zenbakia betetzeko, uste danez 72 urtean bizi izan zanda. Eta Aitagure bat Aita Santuaren naierako. Barkapenak irabazteko letanien bearik ezta; baiño egoki da esatea.

Antoniotara ta elizkizunak.

Etxetik irtetzean. Aitaren eta Semearen † eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.

Nere oinkada guztiak Zugana zuzendu itzazu, Jauna. (1).

Elizan sartzerakoan. Zure Etxean sartuko naiz, ementxe agurtuko zaitut, eta zure izena aitortuko det. (2).

Belauniko jaítzean. Emen eta munduan diran eliz guztietan agurtzen zaitugu Kristo Jaun Deun-deuna, eta onesten zaitugu zure Gurutzeaz gizia salbatu dezulako.

Sei Aitagure Agur Maria ta Gloria esatea ona da. Irugarangoak bark. osoak irabezten dituzte esanaldi guztietan, bai elizan, bai edozein lekutan. Irugarangoak ez tiranak 300 eguneko bark. esanaldi bakoitzean baiña elizan. (Coll. Ind.).

Gogańketa laburak.

Jeremias Igarleak esaten zuan, biotzez eta ańretaz gogańtzen duanik ez talako, luńgain au galdua dagola (3). ¿Nola zuzendu ta ondu dezake batek bere bizikerra bere buruari begiratu gabe? ¿Nola galbideak utzi ta onbideak ańtu egi iraukońak gogoan erabiltzen ez paditu? San Antoniok dionez gogańketa, gogo-otoitza, gure burua ezagutzera ta Jaungoikoa-

(1) Ps. v.

(2) Ibidem.

(3) Jerem. 12.

ren ezaguerara eramaten gaituan jakituria da.

Oregatik amar edo amabost *minuto* al badezu goizetik artu itzazu egintza santu onetarako. Emen sutuko zaizu biotza Jaungoikoaren maitasunean, David Igarleak dionez (1). Agian denbora gutxi dezulako orexegatik otoizkai auek laburtxuak jaitzen zaizkizu.

Irakuri ondorean belaunikatu zaite, Gurutze Santuaren... egizu; Jaungoikoaren aurrean *fedez* jari zaite, ta auxe esanzu.

Autsa ta luia banaiz ere Zurekin itz-egingo det, Janua. Eruki zaite pekatari onetzaz (2). Badakit gogapen on guztiak Zugandik etori bear zaizkidala ta zure laguntza gabe zure izen santua autan artzerik ere eztaukadala; baiña zerorek diozu Zugana ure-ratzen dana eztezula aldenduko (3) eta onek biotza indartzen dit. Lagun zadazu bada une onetan, eta Zure Espiritu Santuaren argi-eranu bat bada ere biali zadazu.

¡Atoz beartsuen Aita! ¡atoz grazien Emalea! Gogo-otoitz au ondo egiteko argitasuna emaidazu. (*Aguir Maria bat*).

(1) Ps. 38.

(2) Lucas 18.

(3) S. Joan. 6.

I.

Salbazioaz.

1. Nere Salbazioa da nere egitekorik aundiena. Baldin nik ardurarik ezpadaukat gai onetan ¿nork eukiko ote du nitzaz?...

2. Eginkizun aundia, nagusiena, betiko zoriona emendiketoñi bea' zaiteta... Zorion ori bein galtzen badet ¿nork iritxiko ote dit?—Beti-betiko galdua izango naiz...

Begira ezazu nola ibili zeran salbazioko bidean: ondo ote. ¿Eman ba eskeñak Jau-nari: ga.zki ote? Damu zaite, barkapena eskatu, eta zure asmo onak a'rtu itzazu.

Frutua. Askotan gogoan ibili Jesu-sen esakun au: *¿Zer balio dio gizonari mundu guztiaren jabe egiteak baldin bere anima galtzen badu? (1).*

II.

Eriotza.

1. Ilgañi-etsia nago; baiña eztakit noiz ilko naizen: oraintxe il niteke...

2. Eztakit non ilko naizen. ¿Pekatuan ote? ¿Leku artan edo lagun are-

(1) S. Math. 16.

kin nabilenian?... Non eta nola dabilzkit nere gogapenak eta naikiak?...

3. Eztakit nola ilko naizen: ¿pekatuz zikindua ote?... Alataz guztiz ere ain erax irinsten det pekatua... Zein epela dan nere sinismena? ¿Zein gogora nere biotza!...

Azteitu zure barua; ondo bazaude, eskerak egin Jaunari: gaizki bazaude beriz damu zaite ta aitorkun on bat egizu.

Frutua. Nere aminaren ardura beti eukiko det (1), Jesus eruki zaite nitaz (2).

III.

Eriotzaren beñi bildurgariaz.

Baldin uste gabe ilda geratzen ezpazera azkeneko ordu bat etorko zaizu: azken-ordu oretan esango zaizu; iltzera zoaz eta eratu zaite.

1. Nere pekatuak gogora ekañi ta beñ bezela aitortzeko bururik asko izango ote det agian zer esaten dedan eztet jakingo-ta?...

2. Il-larrietan oñazez eta naigabez betea, nere pekatuak gogora ekañtzeko talantan egongo ote naiz?...

3. Nere barua mataza nastu bat

(1) Ps. 98.

(2) Marc. 10.

bezelaxe egongo da, ta nere pekatuetzaz negar egiteko biotzik izango otedet?...

Frutua. Begira zure konfesioak nola egin dituzun. Gogoan euki Apostoluaren esakuna: *denbora degun ardean on egin dezagun* (1).

IV.

Eriotz ona irixteko eraz.

Eriotz on bat irixteko zer egin bear ote da?

1. Orduan naiko zenukena, orain egizu...

2. Orduan ezin egingo dezuna, orain egizu...

3. Orduan nai ta naiez egin bearko dezuna, orain egizu: zure anima ondo jari ezazu...

Frutua. Azkenetan bazeunde bezela zure gogapenak, itzak eta egiteak aztertu itzazu. Eta David Eregeakin askotan esazu: *Nere gaiztakeri ta pekatuetatik geiago garbitu nazazu. Jauna* (2).

(1) S. Paul ad. Gal. 6.

(2) Ps. 50.

V.

Azken-arñasa

1. Iltune arñtan nere Anima gorputzetik beti-betiko aterako da, ta gorputzaren zorakeri ta atsegiñak lagako ditu....

2. Agur betiko bat egin bearko diet nere adiskideai, aundikeri ta arkeriari....

3. Galdu niteke une arñtan beti-betiko. Une ontan ilko banintz ¿Nora joango ote nintzake?...

Frutua. Begira sarñtan nola zauden Jaungoikoaren aurean. Gogoan euki Jesusen ezakuna: *Egon ernai ez eguna ta ez ordua ez dakizute-ta.* (1)

VI.

Animaren Auzia

Siniskitzako edo *fedeko* egia da: *gizonak bein il beark duala, ta il-ostean berealaxe epaitua izango dala.* (2) ¿Non egongo ote da auzitegi ori?—Iltzen zeran lekuan. Gogoratu ezazu bada nonai Jaungoiko Epailen zorotza aurean daukazula.

1. Jesukristo Epailen zorotza aurean....

(1) S. Math. 25.

(2) S. Paul. ad. Heb. 9.

2. Deabrua nere pekatu guztiak esku-liburu batetik bezela aurkezten dizkidala...

3. Nere aingeru zaitzailea liburu txiki batean nere on-egite apurak dituala, betiluna...

¡Zein ikuskari bildurgarria! ¡Zer estutasuna nerea!

Frutua. Gauaz etziten zeranean gogora ezazu gau artan il ziñezkeala ta beguira ezazu oera nola zoazen; esazu: *Jauna Zure eskuetan jaritzen det nere anima.* (1)

VII.

Gai bera

1. ¡Kontu estua izango da orduantxe artuko didaten kontua! An agertuko dira gure gogapenak, itzak, egite guztiak; eman ditudan ikasbide txarakin galdu diran animak; nere biotzean ate-joka egoten ziran *graziak* berak....

2. Epaila zorotza izango da. Bere aurrean egin ditudan pekatu guztiak aurkeztuko dizkit....

3. Epaituko nau, ta bein ematen

(1) Ad. Complet.

didan epaia ezta aldatuko... Eztago ezertarako denborarik, ezta erukirik ere. Betiko bizitza zeruan, edo betidiraun eriotza infernuan!!...

Frutua. Etzaite aztu Jesus Epaiñe zoñotza dezula. Zerbait egitera edo esatera zoazenean zure buruari galdetu: ¿Zer epai ote dagokio oneri? Jaungoikoak ¿nola arñtuko ote du?

VIII.

Biztaldiaren balioaz

1. Biztaldi edo denbora balio aundiko ogasuna da. Pekataririk aundiena une batean damu diteke, eta Jaungoikoakin adiskideturik bere anima salbatu lezake. Begira ba zenbat on egin nezaken eta ez det egiten!...

2. Gaur eguna igaroko da ta ezta geiago biurñtuko....

3. Lurgañean igaro ditudan egunen kontua eskatuko zait, eta alare ain ajola gabe bizi naiz! ¿Zorigaiztokoa ni ontzen ezpanaiz!....

Frutua. Denbora ondo onuratu, eta askotan esan Agustin dontsuarekin: ¡O betikotasunean sartzen gaituzun azken-unea!

IX.

Infernuaz

1. ¿Zer ote da infernua?—Beñere bukatuko eztiran miñ, oñaze ta atsekabe ematen dituan lekua da infernua; su-garéz betetako espetxea edo karzela....

2. ¿Zer egiten da infernuan?—Jaungoikoa gorotatu, norberak bere burua gaitz-etsi, ére ta kiskaltzen egon beti...

3. ¿Zein gogóra ta latsa egingo zaion leku ura atsegiñetan bizi izan danari!...

Frutua. Pekatuko lagunak eta bideak utzi, eta saritan esan: *Infernuko bidetik zaitu nazazu Jauna.* (1)

X.

Anima galdu baten biotz-larriak

1. Jaungoikoak ni salbatzeko naitzko egin zuan: Grazia pranko eman zizkidan! ¡Amaika bider biotzeko atak jo zizkidan! Sakramentu santuak ortxen neuzkan!... Bera Artzai ona beti nere bila, ni beti igesi!...

(1) Off. Def.

2. Érax salbatu nitekean! baldin lagun ura, etxe ura, oitura txar ura utzi izan banu... Konfesio on bat egin banu!!.. Baiña enuan nai, ta orain betiko emen nago!...

3. Neronek ekañi ditut gaitz oek nere buruagana....

Frutua. Eskerak egin Jaunari zerrurako egin zaitualako; eta esan: *¿Noiz joango ote naiz Jauna, Zure arpegi edera ikustera? (1)*

XI.

Damu-bidea

Pekatu egin det... ondo da; erabakirik dago bada: *infernua edo damu-bidea*. Ez-tet betiko galdu nai; baiña pekatuan nabil gero onduko naizelako itxaropenaz. *Zorigaiztoko gero. Gogartu ezazu:*

1. Jaunaren eskar-laguntzalea ta denbora izango ote ditut?...

2. Ori eukita ere, ¿gogorik izango ote det?...

3. Damu-bidea artuagatik, iraungo dedala, ta salbatuko naizala ziur egon ote niteke?...

Frutua. Konfesio on bat egizu; eta

(1) Ps. 41.

pekatuak barkatu zaizkizula-ta, bildur gabe etzaite izan. (1)

XII.

Zerua

Lenengoz zeruan sartzen naizenean ¿zer asmatuko ote det? ¿An eztagonik zer izango ote da?

1. Ondasunezko iturri agor-eziñak. Ango atsegiñak ¡ango gozotasunak! pozkariz bete-beteak!...

2. Ango atsegiñak gozartuko ditut, Jesus, Ama Maria, San Jose, San Antonio ta ainbeste aingeru ta Santu lagun ditudala. ¡O, zein onak nere-tzat!...

3. Atsegin aiek beti-beti izango ditut neurri gabe, inoiz galtzeko bildur gabe! ¡O Zerua! ¡O Zerua!...

Frutua. Nekaldietan esan: *Zein maitagariak diran, Jauna, zure bizitegiak ara joateko naiez dago nere anima (2).*

XIII.

Zeru-bidea.

Bi bide daude zerurako erugabetasuna edo damutasuna: Begira ba:

(1) Eccl. 5.

(2) Ps. 83.

1. Bataio santuan eman zidaten janzki edera, garbi zaitu ote det?... Bai zera! Zorigaiztokoa ni, mila aldiz pekatuz zikindu det-eta...


2. Penitenzia egin ote det—Bai! ortarako egon naiz! entzute utsak atzera egiten dit... Laztasunik txikienak ikaratzen nau, ta beti igesi nabil.

3. Ta onela zeruratzeko itxaropenik izan alnezake?—Bai—¿Nola baina?—Penitentziako bidetik. Laga dit-zadan bada, nere zorakeriak, ibilera txararak, pekatuko eratiak; konfesio on bat egin dezadan, eta jaraitu San Antoniori.—Au egiten ezpadet enaiz salbatuko.

Frutua. Zeruzaz oroitu zaite eta oinperatu itzazu munduko gauzak, ezer ez tute balio-ta. Sari esan gure Aita San Prantziskokin: *¡Nere Jaungoikoa ta nere zer guztia!*

(500 eg. bark. esaten dan aldi bakoi-tzian. Coll. Ind.)

Beste otoizkaiak artu ziñitzake Amairu asteartietatik eta Bederatziurenetik.



Antionotařak eta Sakramentu Santuak.

Aitořtza edo konfesioa.

Pekatu egiten eztuanik ezta, Espiritu Santuak dionez (1). Lapuřak ařtuta lařu gořian eta dana zauritua laga zuten gizon ura bezelaxe gera guztiok (2). Lege zařean bezela garbitoki bat beař genuan gure animako zauriak sendatu ta gure ořbanak kentzeko, eta Garbitoki ori Konfesioko Sakramentuan jaři zigun Jesukristo gure Jaunak.

Pekatu lařian dagonarentzat beař-beařekoa da, gogoz egitez ezin danean; bestientzat on-ona anima indařtu ta eskař beřiak ařtzeko. Antionotařak ilean bein gutxienaz aitortu beař dute (3).

Onela eratu zaite.

Otoitza.

Gizonen biotzeko sokorik ezkutuenak biřatzen dituzun nere Jaun eta Jaungoiko ořek, nere biotza azteřtzeko *grazia* emaidazu nere okeř guztiak ezagutzeko, ondo aitořturik eta pekatuko bide guztiak alde batera lagata, barkapena ta zure *grazia* emen luřean

(1) Eccles. VII.

(2) S. Lucas. X.

(3) Araudia—*Eregla*.

ta gero zerua iritxi ditzadan: Gure Jaun Jesukristo Beragatik. Amen.

Iru Agur Maria Ama Maria Doneari.

Azterketa edo Examiña.

Lenengo Agindua. Goiz-aratsetan eta jatorduan nere otoitzak egin ote ditut?... Eliz Ama Deunak erakusten duan guztia sinisten ote det?... Fedeko gauzetaz lotsatu ote naiz edo bere kontra itz-egin ote-det?... liburu, paper txarrik irakurri ote det?... Zоргinkerin batean ibili ote naiz?...

Bigarren Agindua. Biraurik esan ote det? Noren kontra?... Elizaren eta bere Ministroen kontra mintzatu ote naiz? Noren aurrean? ¿Ziñik juramenturik egin ote-det?... ¿Nola? Gezuréz... bearez...?

Irugarren Agindua. Igande ta jai-egunetan Meza osoa entsun ote det?... ¿Nola egon izan naiz elizan?... ¿Lanik egin ote-det?... ¿Zenbat denboran?...

Laugarren Agindua. ¿Nola zabilta gurasoakin?... itzez egitez naigabeen bat ematen ote diezu? Irabazten dezunetik ematen diezu? Mirabea bazera, begiratzen diozu etxearen onari? ¿Zintzoa ote zera lanian eta zure egin-bearetan? ¿Lantegira zoazenean zintzo lan-egiten dezu?... edo alperkerian egoten ote zera?

Boskaren Agindua. Itzez, egitez edo naiaz kalteren bat egin ote diot inori? ¿Jan-edan geiegirik egin ote det? Goñorik inori?... Birau txarrik?... ¿Burukarik?

¿Galbideen batean jañi ote det norbait?
¿Beañean dagonari lagundo ote diot?...

Seigarañen Agindua. Itz txarañak esaten dituzu? ¿Gogapen eta naiki loiak biotzean lekurik arñzen ote dute? ¿Nola dabilzkizu zure eskuak?... Egitez utsegin dezu? ¿Norekin? Pekatuko bidean jañtzen zaituan lagunena bat bai-ote-dezu? ¿Dantza nastuetan eta Zinietan sarñtzen al zera? ¿Zure begiak nola ibiltzen dituzu?... Ta zure izketak?...

Zazpigarañen Agindua. ¿Ezer ostu ote dezu? Zer? ¿Nondik?... Kalterik egin diozu iñori? Norbaiti lagundo diozu lapurñetan?

Zortzigarañen Agindua. ¿Gezurñik esan ote dezu? ¿Ala eztan gauzik ezarñi diozu bes-teri? ¿Iñoren izen ona autan ibilñi ote dezu? ¿Marmarñian egin dezu?

Bederatzigarañen Agindua. Agindu onen kontrako utsegiteak Seigarañenean bilatu ditezke,

Amargarañen Agindua. Zureak eztiran gauzen nairik izan ote dezu? Jaungoikoaren kontra jañi zera noizbait nai dezuna eman eztizulako?...

Eliz Ama Deunaren aginduen kontra... Barauak egin dituzu? Aragi uzteak ere bai ote? Egun oietan nastu ote dezu?

**Zure pekatuak gogora ekañi ondoren
auxe esazu.**

¡Zer nere Anima! oñenbeste pekatu

egin dituzu! Eta zer dala-ta? Eta nola? ¿Zer kalte egin dizu Jaungoikoak orla naigabetzeko? (1). Erantzun ezazu? ¡Ai nere begiak iturri bi balira nere pekatuakatik negar egiteko! ¡Jesus, Daviden Semea, eruki zaite nitzaz! (2).

Damu zaite biotz-biotzez egindako utsegitietzaz; pekatua uzteko asmoa artu ezazu, eta Nere Jesukristo Jauna esanda apalki apaizagana ureratu zaite Agur Maria guztiz garbia esanaz. Garbi, ondo aitoitu ondoren bere itz onak entzun itzazu; bete ematen dizun ordaintza, eta Jaunari eskerak agertu egin dizkizun mese-deakatik.

Eukaristia.

Lur gain onetan eskerik aundiena **Eukaristian** Jesukristo artu alizatea da. Sakramentu Santu oretan gure biotzean sarturik ondasunez eta maitasunez betetzen gaitu Jesus-Jaungoiko-Gizonak.

Gure anima indartzeko janaririk onena **Eukaristia** da. San Antoniok dionez Jaungoikoagana itzultzen diranai bizmena ematen dien janaria da; atsekabetuak alaitzen dituana; zamatuak arintzen dituana; argalak indartzzen dituana. Ureratu zaite bada saritan Jesusgana *bizmena ematen duan Ogia Bera da-ta*. (3).

Jaunartze aurretik begiratu ezazu zure

(1) Mich. 6.

(2) S. Math. 10.

(3) S. Lucas. 6.

baita, eta pekatu lañien bat arkitzen badaizu aitoritu ezazu: utsegite txikietzaz eredanu zaite, eta *fele* biziaz zertara zozen gogartu ezazu. *¿Nor zera zu? ta nor naiz ni?...* Bi gogapen auek pixka bat gogartu ondoren esazu.

Otoitzak.

Gure eskariak entzuteko zure erukitasunaren belarriak zabaldu itzazu Jaungoiko erukior-erukior orek, eta Espiritu Santuaren graziz gure biotza argitu ezazu, bear bezela zure Sakramentua artzeko din izan gaitezen eta betiko maitasunaz maite zaitzagun.

Nere Jaungoikoa! biotz guztia agirian dagokizu ta naimen orok itz-egiten dizu eta ezta ezkuturik Zuk ezta-kizunik; Espiritu Santuaren ur-itsurtzez nere animaren gogapenak garbitu itzazu, osotoro Zu maitatzeko ta dagokizunez Zu goraltzeko diña izan gaitezen.

Gure gerriak eta gure biotza Espiritu Santuaren su-garez ere itzazu, nere Jaun Orek, gorputz garbiaz otseindu edo *serbitu* zaitzagun, eta biotz gardenaz atsegin eman.

Zugandik datorren *Paraklituak* gure

animak argitu ditzala, aŕen-dagizugu Jauna, eta, Zure Semeak agindu digunez, egi guztietan zuzendu gaitzala.

Eskatzen dizugu, Jauna, Espiritu Santuaren indar̄a beti gurekin izan dedila, eta gure biotzak samur̄ki garbituta, okeŕ guztietatik zaitu gaitzala.

Sinislien animai Espiritu Santuaren argiz erakusten diezun Jaun Oŕek Espiritu Santu beraren graziz iritxi zaiguzu on-zaleak izatea ta bere alaitasunak gozar̄tzea.

Eŕegutzen dizugu, Jauna, gure biotzai garbitzeko ikustaldi bat egin dezaiezula, Zurekin, Espiritu Santu-Jaungoikoarekin batera eunki ta eunkietan bizi dan Jesukristok, datoŕenean, bere bizitegia ondo eratua arkitu dezan. Amen.

Jesu gozo-gozoa, sinismenaren, itxaromenaren eta maitamenaren geigar̄ia indazu ta biotz damutua ta apala.

(100 eg. bark. egunean. Coli. Ind.)

Ni pekataria esazu, eta apaizarekin: Jauna enaiz Zu nere biotzean sartzeko diña; baiña esazu itz bat eta nere anima sendatuko da, (iru aldiz).

Jaunartze ondoren

Arimaren bakarizketa

¿Zer egiten dezu nere anima? ¿Bai aldakizu zure Erosle-Jaungoikoaren bizitegi zerala?... Etzaite bada nagi egon, eskatzeko aldian zaude-ta. Zure biotzean daukazun Jaungoikoa-gandik bear dituzun eskar guztiak ar-tu ziñitzake... Zeruak zabalik dauzka-zu. Irutasun Santuak bere begiak zu-gan eta zure biotzean daukazun Je-susgan ipintzen ditu. Ama Maria, Aingeruak eta Santuak zure eskariak indartzeko daude. Ez ba galdu aldi au. Zabal ezazu biotz ori, sutu zure *fedea* ta ondo dagokizun guztia es-kaiozu Jesusi.

Zure animako mena guztiak bildu itza-zu: gogañtu ezazu Jaungoikoak egin di-zun mesedea; eta eskatu zuretzat, fami-liarentzat, pekatarien ona, garbitokikoen atsedena, eta ilañietan daudenen eriotz ona. Ta esazu:

Kristoren Anima donetsi nazazu.
 Kristoren Gorputza gaizkatu nazazu.
 Kristoren saietzeko Ura garbi nazazu.
 Kristoren Nekaldia indañtu nazazu.
 ¡O nere Jesus ona! entzun zadazu.

Zure Zaurien baruan zaitu nazazu.
 Zugandik aldentzen utzi enazazu.
 Etsai gaizkiñetik aldeztu nazazu.
 Eriotzako orduan deitu zadazu.



Eta Zugana joateko agindu zadazu.
 Eunki ta eunkietan zure Santuakin
 goraldu zaitzadan. Amen.

(300 eg. bark. Coll. Ind.)

OTOITZA

Emen zure aurrean auzpezturik naukazu inere Jesus on eta gozo-gozo oreak! eta nere animako berotasun aundienaz eskatzen dizut, sinismen, itxaromen eta maitamen bizi bat, eta nere pekatuen egiazko damua ta aurrerakoan besterik ez egiteko asmo sendoa nere biotzean ezari ditzazula nere biotzeko samintasun eta erukirik aundienaz Zure bost zauriak gogoratzen ditudan bitartean, Zugatik jene Jesus Ona! David igarle Santuak zionna begien aurrean eukirik: *Nere esku ta onak zulatu dituzte, ta nere ezur guztiak zenbatu litezke.*

(Barkapen osoa Gurutzearen aurrean esanda. Zerbait otoi egin bear da Aita Santuaren naierako. (Coll. Ind.)

—

Aintzaldua ta Goraldua izan bedi beti Aldareko Sakramentu Santua.

(100 eg. bar. bein egunian: eta bark. osoa ilean (ibidem).





MEZA SANTUA


Gure Eñrliogioko egintzarik aundiena ta Eliza Ama Deunaren eginkizunik don-tsuena Meza Santua da.

Luřgañean egin dan egiterik aundienaren aurkezpen egiazkoa da Meza Santua; au da Gurutzeko Goi-Oparen aurkezpena. Jaungoikoaren gogokoa dan Guřegintza bakara Meza Santua da; Onekin bakarik eman genezaioke beař bezela zor-diozkagun eskeřak; Onekin bakarik beratu genezake bere Zuzentasunaren aseřea. Berau degu biař ditugun eskeřak irixteko biderik nagusiena.

Kristau batentzat jaierarik onena ta Jaungoikoaren gogokoena Meza Santua da. Garbitokiko animen oñazeak geienak arintzen dituana; eta Zeruko Grazirik aundienak irixten dizkiguna. (C. Trid. SS. 22). Etzazu bada egunik utzi Mezarik entzun gabe.

Ona emen Prantziskotar Leonardo doatsuaren Otoitz batzuek obeto entzuteko.

Otoitz bakoitzaren bukaeran San Antoniorentzat eskaritxo bat arkituko dezu.



Meza auretik Espiritu Santuari Otoitza

Atoz Espiritu Santua, ta Antonio doatsuaren bitartez zure grazi deundeunarekin nere aminaren naiki ta al guztiak bildu itzazu Meza Santu auggoz eta adiz eutzun, ta Jaungoikoaren gloriarako ta nere onerako naitudan onura aiek iritxi ditzadan. Amen.

Eskeintza

¡Jauna! zure Seme-Jesusen Oparia bere irabazi guztiakin eskeintzen dizut, zure aintza edo gloriarako, egin dizkidazun ongi guztiakatik nere esker ona zuri agertzeko ta nere peka-

tuen barkapena irixteko: baita pekatuan, il-lañietan ta Garbitokian dau den animen onerako ere izan bedi. Zure azkengabeko Ondasunagatik eta zure Seme guztiz Santuaren irabaziazatik nere pekatuen kutsutik garbi nazazu ta nere eskariak eutzun itzazu nere Aita maite-maitekoñ oñek. Amen.

Eta zuk Antonio, nere bitarteko gozo oñek aldi onetan lagun dagidazu añen, zuk Meza eman ta entzutean eukitzen zenuan berotasun ta jaiera añekin Meza Santu an entzun dezadan. Amen.

Ni pekataria esan ezkeru

Nere Salbatzañe maite-maitekoña, atsekabeen indañez biotza estu baiño estuago jañirik, Gethsemaniko baratzan il-lañiz odolezko izerdia zeriozula Aitari otoi-egin zeniona, egizu añen zure Nekaldi edo Pasioaren jipenean nere begiak malko ugarriak ixuri ditzatela. Amen.

San Antonio apal-apala, Jaungoikoaren añean zure biotza beratzen zan bezelaxe, egizu nerea ere beratu-

ta, pekatuak garbituko dizkidan ne-
garézko itxaso bat egiñik geratu de-
dila. Amen.

Introitoan edo saíeran

Jesusek Anasen etxean belaíondoko
gogoí bat artzen du.

Gaizkile bat bezela Anasen aurera
eramanda judaí gogoí aiengaudtk be-
larondokorik lotsagaíena artu ze-
nuan nere Salbagile biozpera Oírek,
egizu nere etsaien txarkeriak gogo-
onez artu ta mundu onetako nekeak
eta gazi-gezak ondo eraman ditzadala.
Amen.

Paduako miragile doatsua nere bi-
taítzko jaí zaite Jaunak grazi au-
eman dezaidan.

Amen.

Kyrie eleison...

San Pedrok irualdiz ukatzen du

Kaifasen etxean Pedrok iru aldiz
txepelkeriz ukatu ziñuan Jesukristone-
re Jauna, lagun gaiztoetatik zaitu na-
zazu, oien ondoren ibilita zure azken-

gabeko Ondasunetik alde-egin ez dezadan. Amen.

Indazu, Jauna, grazi au zure mirabe San Antonioren irabaziakatik. Amen.

Dominus vobiscum esatean

Apaizaren naiarekin zurea batuta esan ezazu

Iguzu, Jauna, apaizak gaur eguneko Santuaren (edo Santuen) bitartez oen santutasun ta irabaziakatik eskatzen dizuna.

Amen.

Epistolari

Era txarrean ta gogoñki Pilatosen etxera eramanda bere aurrean gezurrezko testiguakin zitalki salatua izan zinan nere Salbagile on-ona, gaiztoen maltzurkerietatik aldentzen erakutsi zadazu, ta egizu arian nere egintza onaz zure fede katolikoaren santutasuna nere bizitzako azken-arnasa arte agertu dezadala.

Amen.

Siniste-auzlien malua zeran orek munduko Salbagileari eskaiozu gure

adimena ta gizon guztiena argitu dezala, danok fede batean elkaturik Jesukristo gure Érege ta Jauna ezagutu maite izan ta goratu dezagun gero Berarekin betikotasunean zorionekoak izateko.

Amen.

Ebanjelioan

Pilatosgandik Herodesgana ta
Herodesgaudik Pilatosgana
eramana da Salbagilea.

Herodesgandik Pilatosgana eramana izanik biok adiskide-bidean jarri zenituan nere Jaun kupikoŕ oŕek, gaiztoak nere kontra artzen dituzten asmokeriai bilduŕik ez izateko indaŕa indazu aren, eta berak jaŕtzen dizkidaten eragozpenetan nere biotza nastu gabe gordeta, zure naiarekin bat egiñik beti egon nadiŕa. Amen.

Kristoren fedearen aldezle sutsua ta bere Ebanjelioaren erakuslaria, iritxi zadazu aŕen Jaunagandik beaŕ ainbat indaŕ bere fedea aitortzeko ta bere arauaz nere gogorapenak, nai-kiak, itzak eta egintzak eratzeko.

Amen.

Apaizak Hostia ta Kaliza eskeintzean.

Jesusek bere gorputzaz egie zuan
eskeintza esan nai du, astiñaldian
ixuri zuan odola batez ere.

Jesukristo nere launa, nere pekatuen zoñak zure Aitari ordaintzeko, zigorézko ugolde-erazoz zure Odola ixuri nai izan zenuana, egizu Odol goitsu oréz nere pekatuen kutzu nas-kagañiak garbitu ditzadala, onela nere anima garbiturik zure azkengabeko irabaziakin batera zure Aita Betikoari eskeñi dezaiodan.

Amen.

¡O Antonio doatsua! zure irabazi ta neke aundiakin batera eskeñi zaizkiozu añen Aita Betikoari nere otoitz epelak.

Amen.

Apaizak eskuak garbitzean

Pilatosek Jesus erugabea dala
aitortzen du.

Pilatosek erugabea ziñala aitortu zuanean, zure kontra zeuden judañ amoratuen oju ta kañesiak eramane-nik arigañienakin entzun zenituan

Jaungoikoaren Seme nere Salbagile orek iritxi zadazu aeren munduko ur aroen erdian eru gabe bizi nadila, ta etsaien txarkeriak ondo eraman dit-zadala. Amen.

San Antonio tolesgabearen bitartez eta bere irabaziatatik eskatzen dizut grazi au bere onbideak jaraitzeko laguntzarekin batean.

Amen.

Orate fratres ta Prefazioa esatean

Gure Salbagilea ilgari etsia.

Gurutze gur gogorean lotsagari itzeko epairik bidegabekoena Pilatos-gandik artu zenuan nere Jaun kupiko orek, iritxi zadazu, nere azkene-tan, nere eriotzaren epaia, zure maitasunez bildur gabe artu dezadala, danik eta gogorena izan da ere, ta azken-arnasa ematean nere anima zure besoetan arkitu dedila. Amen.

¡O nere bitarteko San Antonio maittea! ordu izugarri artan enazazu utzi; lagun dagidazu aeren, ta zure esku garbietan nere anima artu ezazu Aita Betikoari eskeintzeko.

Amen.

Bizien Mementuan.

Gure Salbagileak Gurutzea
bizkañean artuta Kalbario-mendira
daramaki.

Nere Salbagile Biozpera, gizona salbatzeko Gurutze aztuna zure bizkañean Kalbario-mendira eramán nái izan zenuana, egizu añen, zuk bezelaxe, munduko eramakizunak egiten didaten gurutza gogoz arturik, zure maitasunez eriotza arte apalki eramán dezadala. Amen.

Eguizu ¡O nere Jauna! onoimen edo bertute onetan, ta besteetan ere, penitenziaren ispilua, San Antonio, antzeztu dezadala. Amen.

Hostia jasotkean. (1)

Gure Salbagilea Gurutzean josi
ta jasoá.

Nere Jaungoikoa ta Zeruko Aita; Kristoren arpegi zoriontsuari begira zaiozu, ta nitzaz eta pekatari guztietzaz eruki zaite, Jesukristo zure Seme

(1) Hostiari begiratuta. "Nere Jauna ta nere Jaungoikoa" esanik 7 urteko bark. aldi bakoitzean. Asteán bark osoa.—Pius X. 18-V. 1907.

onetsiak, gure Jaunak, gugatik il ta gurre onerako Aldareko Sakramentu Santuan geratu nai izan zuan-da: Berarekin zaude zu ere, Aita, ta Berarekin dago Espiritu Santua; Zu Semearekin ta Espiritu Santuarekin Jaungoiko bakarra zeran ori eunki ta eunkietan. Amen. (Asisko Prantzisko Deunarena).

Kaliza goratzean.

Salbagileak zaurietatik ixuri zuan odola adierazten du.

¡O nere Jauna, nere Jesus ta nere Jaungoikoa! zure zaurietatik odola txirioka aterazo zenuana, grazien iturriak guretzat izan zitezten! Egizu aeren nere animak, zirikaldi edo buruzpide txaren batek artua dogonean, Zauri dontsu oietara zuzendurik, berak azpiratzeko bear duan sendakai indartsua arkitu dezala.

Jaungoikoaren maitasunean suturik zauden miragile doatsua, Zauri oietan zu ezkututzen ziñan bezelaxe, nik nola ezkutatu bear dedan erakus zazu, aeren. Amen.

Iien Mementuan.

Kristok bere gaizkilien alde egin zuan otoitza adierazten du.

Gurutzean josirik il-miñik aundietan gizadiaren salbazioagatik Zure Aita Betikoari otoitz-egin zenion nere Jaun Biozpera Orek maitasun sutsuaren goiko garéz bero-bero egizu nere biotza, auéerakoan, Zuk erakusten didazunez, geideak edo projimoak bigunki maite izan, ta nere etsai guztiai ongi egin dezaiedan. Amen.

Zure eskariak Jaungoikoaren auérean jaíri itzazu, O Antonio biotz biguna, egiazko anai-maitasuna guztiai eman dezaigun. Amen.

Pater noster.

Jesusek Joan donea ta gizon guztiak Ama Mariaren babespean jaítzen ditu.

Il-auéretik zure Ama deun-deuna Joan Ebanjelariaren ardurapean, ta ikasle berau Ama guztiz donearen babespean jaíri zenuan Jesukristo nere Jauna, nere anima ta gorputza, nere bizitzak dirauen aldi guztirako, zure ardurapean artu itzazu, zure laguntzaz onbideetan auéeratunadin. Amen.

San Antonio zure mirabe zintzoaren ardurapean ere egon nadiā beti, etsaien zareetatik azkaturik zeruko kaiara eldu nadin. Amen

Apaizak Hostia erdibitzean.

Jauna anima onak azkatzeko Linbora dijoa.

Nere Salbagilē on-ona, Linbora getxirik anima on aiek atsegiñez bete ziñituana, egizu aren, zure Odolaren ta Nekaldiaren graziazko indara Garbitokiko animetara eldu dedila, minoñaze izugarī aietatik aterata zeruko glori betikora eramana izan ditezen. Amen.

Bere kutsuak garbitzen dauden anima gaxo aietzaz etzaite aztu Santu miragile arigarīa: Jaungoikoaren aurrean beren alde otoi egizu, minoñazetatik lenbailen azkatuak izan ditezen. Amen.

Agnus Dei esatean.

Judař askoren onbiurtzea adierazten du.

Jesukristo nere Jauna, Zure eriotza

ikaragarria ikusi zuten Iudaŕ askori
 • begiak argiturik beren pekatuakatik
 negar eragin ziniena, egizu aŕen Eri-
 otza santu oŕen bitartez nere peka-
 tuak damu-negaréz garbitu ditzadala.

Amen.

Aundi-aundiak dira nere pekatuak
 San Antonio, nere Aita doatsua, bai-
 ña zure bitartez uste det Jaunagandik
 beren barkapena iritxiko dedala.

Amen.

Apaizak Jaunartzean.

Jesus Gurutzetik getxi ta Berau il-obian
 sartzen dute.

Nere Jaun Biozpera, gizadia salba-
 tzeagatik il-obi berian zure Gorputz
 deun-deuna jaria izatea nai izan ze-
 nuana, egizu aŕen nere anima ta bio-
 tza beriztuak izan ditezela, zureak
 beti betiko izan ditezen.

Amen.

¡Nork eman ote dezaiket, Jauna, Se-
 rafin Antoniok bere biotzean artzen
 zinuanean eukitzen zuan berotasuna,
 beronekin Zu nerean artzeko! Indazu
 grazi au bere otoitz eta irabaziakatik.

Amen.

Apaizak bendizioa ematean.

Espiritu Santuaren etoñera
Apostoluengana.

Nere Jaun maite-maitekoña, zure Ikasleak otoitzean ari zirala berak poztutzeko Espiritu Santua zerutik biali ziñiena; zure graziaz nere biotza garbitu ezazu añen Beragan estalpe atsegingarria arkiturik nere animaren beñak ongitu ditzadan. Amen.

Onetsi nazazu añen, O Antonio maitea, zure bitartekotasunaz nere animaren etsaiai gogor egin dezaiedan, eguneroko nere lanak donetu ditzadan, ta iritxi azkenik betiko gloria. Amen.

Aldareko Sacramentu Deunari Ikustaldia.

Egiazko Antoniotarñak eztu egun bat utzi beñ Jesus Eucaristiari ikustalditxo bat egin gabe, bere egikizunak lagatzen badiote beinzat. Lurgañean bizi beñ degunok buñukan bizi bearko degu (1); lan, neke ta gazi-geza asko eramán beañean arkituko gera eta gure onbeañez bada ere ondo dagokigu Jesusgana aldian-aldian jotzea.


(1) Job. 7.


Berak deitzen digu bere laguntza eskeñiaz: *Nigana atozte zamatuak zabilztenak eta nik lagunduko dizutet* (1).

Zoaz bada Jesusgana, zure biotz ori zabaldu zaiozu, eta eskatu bere laguntza zure oinkada guztietarako, ta bere maitasun sutsua iñoiz pekatoren batean erori etzaitezen. Aguritu ezazu, eta barkapenak irabazteko esan itzazu sei Aitagure, Agur Maria ta Gloria.

(Amairugañen orialdean).

(1) Math. 11.





SAN ANTONIOREN

Amairu astearteak edo igandeak.

Amairugañen Leon Aita Santuak Amairu astearte edo igande auek egiten dituztenai barkapen osoa eman zien. Jau-

naítzea baldintza da. Aitoíketa Auíz egin diteke. Amairu astearte edo igandietan ezin danean, Amairu egunean oneraspen au egin diteke; baiña onela eztira baíkpenak irabazten Santuaren bitartekotasuna irixteko ona bada ere. Gañera urtean bein bakaík irabazten dira baíkpenak.

Gurutze Santuaren...

Eguneroko Maite-damu-Otoitza.

¡O nere Jaungoikoa! iñoiz agoítzen etzeran erúkizko ituí ori! pekatarien eriotzarik eztezula nai diozu, onbiurtu ta betiko bizimenaz bizitzea baizik. Ona bada emen ¡Jauna! utsa ta ezezeza banaiz ere zure auíean apalki belaunbikaturik naukazu, pekatu-egindedan aldi bakoitzean infernura bota enazulako eskeiak agertzeko. ¡A Jauna, zenbat oker egin ditudan! Baiña biotz-biotzez damu naiz eta Kortonako Margarita donearen malkoak nai nituzke auetzaz nere pekatuak garbitzeko. Zuk begiratzerik ere eztet merezi; baiña Antonio doatsuak besoetan daukan zure Seme-Jesusen bitartez entzun itzazu nere eskaíak.

Eta Beronen eta Ama Mariaren irabaziatik egizu Santu aundi oren

ikasbideak artuta, nere bizikera onaz Zuretzat goraltza, urkoaren ona ta nere animaren santutasuna iritxi ditxadala. Amen.

Lenengo Astearte

Irakurkizuna.

Si quaeris miracula...

¿Mirari bila zabilta?

San Antonioren onesleak bere mirariak ardura onez bilatu bear ditu: bestela ongi esan leioke Jesusek *Fariseoai* ta lege-gizonai esan ziena. *Gizaldi au mirari bila dabil eta ezaio emango Jonas igarlearena baizik* (1). ¿Pekataria al-zera? Begira ba, baldin pekataria bazera Prantzisko deunaren seme apal onen mirariak bide onera aldatu zaitzatela, *Monpelier*, *Bolonian* eta *Paduan* Santu onen bitartez onbiurtu ziranak zure kontra jaikirik, *Ninibetarak* judarai bezela, zure gogortasuna arpegira ez dezaitutela eman. ¿Zuzena ote-zera? ¿Jaungoikoakin ondo ote-zaude? Baldin alabada, Amairu astearte auetan Antonio Kristoren jaraitzale zintzoaren

(1) Math. 12.

onoimenak edo *bertuteak* gogartu itzazu zure anima oietzaz apaintzeko eta *Fedearen* argi ederak zuzentzen zaituala, emen lurgañean bidauřeko euki bear dezun goiko jakituria ikasi ezazu, Azken-epaieko egunean, Sabako erégiña judařen kontra jaikiko dan bezela, Jesusen maitale Antoniori jaraitu diotenak, zure kontra jaiki ez ditezen (1).

Gogartu beza bakoitzak pixka bat, eta nai duan grazia eskatu beio Santuari.

Otoitza.

¡O Antonio doatsua! egizu ařen Jaunaren adiskidetasuna zintzo zaitu dezagula, santutasunean azken arte iraunik, betiko bizitzaren din izan gaitezen. Amen.

Iru Aitagure Agur Maria ta Gloria...

Ikasbidea.

San Antonioren bizitz-edestian irakurtzen degu, 1231'ngo. garagarilaren 12'an, ostiralean ilzala, ta *Arzelatik*

(1) Math. 12.

Paduako André-Mari-Eliz-nagusira bere gorputza urango asteartean aldatu arte etzuala miraririk egin.

Egun artan eskatua iritxi gabe ez omen zan inor geratu. Au dala



ren eskariak Santuari egiteko, berezi-
berezia dule egun au, eta grazi uga-
riak ematen dizkie. Askoren artean
gogoangaria da esatera noana.

Bolonian 22 urte eskonduta zera-

mazkien andre on bateri urteak joan eta urteak etori semetxo bat izateko zaletasunak geitzen zijoazkión. Gaxoa ia etsirik Santuari aren mesede ori irixteko eskatzen asi zitzaion.

«Baldin eskatzen dezuna iritxi nai badezu, erantzun zion Santuak, neregogokoa izango litzake San Prantzisko-elizan dagon nere irudiari amairu asteartietan ikustaldi bat egitea ta egun ortan jaunartzea». Andrea San Antonioren esana egiten etzan nagi ibili. Jaungoiko-Aita erukioak Santuaren bitartez semetxo bat eman zion; zekaaren irudi txarez biotza nairgabetu bazitzaien ere, San Antonio aldare aurrean umeixo edera egiñik azaldu zanean, senar-emazteen pozak etzuan neuririk.

Mirari onen beria laxter zabaldu zan *Europa* guztian. Amairu astear-tien jaiera emendik datořela uste da.

Onura edo frutua

Gizon onak, lagun urkoa onbidera ekařtzeko ikasbide onen txinpartak zabaldu bear ditu, au da ejemplo ona eman.

(San Antonioren itzak).

Biotz-otoitza

¡Jauna! Zure itza nere ibileretan
argi diztiazalea izan beit, ta zure
ikastiak nere begientzat argia (1).

Bukaerako Erantzunkaria

Mirari bila zabilta
Gaitz oker eriotza
Legen gaizkin igeska
Gaixoak sendatuta.

Itxas loki azkatuak
Gauz gorpuzki galduak
Eskatu t'artzen dituzte
Gazteak eta zartuak.

Arixkuak dira galdu
Eta bearak aiendu
Ikusi duanak esan du
Padutarakai galdetu.

Itxas loki...
Gloria Aitari eta Semeari
eta Espiritu Santuari
Itxas loki...

V. Eskatu gure alde. ¡O Antonio
doatsua!

(i) Ps. 118.

R. Kristoren agintsariak iritxi ditzagun.

Otoitza

¡O Jauna! Zure aitorle Antonio doatsuaren bitartez egizu alaitasunak zure Eliza bete dezala, goi-laguntzaz indartua izan dedin eta betiko atsegina iritxi ditzan. Amen.

(100 eguneko bark, aldi bakoitzean. Osoa ilean).

(Coll. Ind.)

Bigarren Asteartea

Maite-Damu-Otoitza (50'ren orialdean).

Irakurkizuna

Mors... Eriotza igeska...

Jaungoikoak ilezkoia egin zuan gizona. Ontarako agindu bakaria ipini zion. *Paraisoan dagon guztitik jango dezute*, esan zien lenengo gurasoai; *baiña or Paraisoaren erdian dagon igale-zuaitz ortatetik eztezute jango. Baldin jaten badezute une bertatik ilko zerate* (1). Gure lenengo gurasoen

(1) Gen. 3.

zoriona ordea eziñ eraman zuan *Satanasek*, eta pekatu eragin zien. Gure gurasoak eragozitako sagarakin gaitz guztiak irentsi zituzten, eta Jaungoikoaren aserea *senipartetzat* laga ziguten. Eriotza guztietera datoñen zigora da.

Jesukristo-Seme-Jaungoiko Berak nekaldi ortatik igaro bear izan zuan bere Aitaren Atsegin-tokian sartzeko, Jaungoikoak ezti lege ori iñori kendu nai. Dienak ate oietatik igaro bear ko dute, betitasunean zorionekoak edo zoritxañekoak izateko. ¡Gogora da animak gorputzetik atera bear a, alkañekin bizi izateko egiñak bai-dira!

Ilko gera ba; baiña bein, Apostoluak dionez, (1) Jaungoikoak olaxe erabakirik dauka-ta. ¡O eriotza! ¡O eriotza! gogoan sañi ibiliko baziñugu besterik izango litzake gure bizikera.

Jaungoikoak badaki ordea bere guztialmenaz eriotzari indara kentzen. Jesusek iru ildako berpiztu zituana. Santu batzuek orixe bera egin zuten, eta San Antonio ezta gutxiena berpiztu izan dituana. ¡O Eriotza! ¿Non dago zure garaipena? San An-

(1) Heb. 9.

toniok bere jaraitzale asko kendu izan dizkizu-ta.

Baiña Santuaren esku altsua pekatariak bide onera ekartzen geiago ikusi izan da. Egiazko eriotza, izugarriena, pekatua da, eta Jaungoikoak daki zenbat pekatutik azkatu izan dituan Zeruko bizitza emateko. Gorotatu ezazu bada pekatua.

(Gogartu beza...)

Otoitza

¡O Antonio arigaria! Jaungoikoaren aurrean gure bitarteko jarri zaite, *graziazko* bizitza inoiz galdu eztezagun. Egizu Jaunaren mirabetzan azken arte iraunik, gure gorputz-eriotza Goi-ko betidiraun bizitzaren asiera izan dedila. Amen.

(Iru Aitagure Agur Maria ta Gloria).

Ikasbidea

Bein gudari edo *soldadu* bat il-larrietan zegoan eta prantziskotar lauprailek zaitzen zuten. Estutasunik aundienetan aika zegoala, bat-batean inoiz ezpezelako alaitasuna azaldu zuan, San Prantzisko ta San Antonio

agertu zitzaizkiola-ta. ¿Ezagutzen al gaituzu? Galdetu zioten; —bai, zaitzen nauten prailietako bi zerate—. Ez: Prantzisko ta Antonio gera esan zion San Prantziskok; Zerutik zuri ikustaldi bat egitera gatoz.

Begira, Aita: zure Anaidiari diodan maitasunez zuen soñeko bat ortxen daukat iltzen naizenerako, ta onetsi bear didazu, esan zion gaxoak: San Prantziskok onetsi zion, eta San Antonioren begiratze gozo batez sendatua geratu zan. Bizikera on-ona egiñik amabi urte geiago bizi izan zan, eta iltzerakoan Santuak lagunduko ziotela sinistekoa da.

Onura edo Frutua

Biztaldi onetako ibai ondotik egiazko goi-bizitzara igaro nai duanak, oben-nekien ontzian edo *peniteziaz* sartu bear ko du.

(San Antonioren itzak).

Biotz-Otoitza

Betiko eriotzatik zaitu gaitzazu, Jauna.

(Eliz-arenditik).

Irugañen Asteartea

Maite-Damu-Otoitza (50'ren orialdean).

Irakurkizuna

Error...

Okeña igeska...

Pekatuak gizonari ekañi zion ondo-
renik txarñetako bat adimeneko il-
nutasuna da. Bere adimen argia ia it-
salirik geratu zan, eta bere izpiak
iñundik etzirala azaltzen ziruditen.

Au dala-ta David eregeak esan
zuan: *Gizonak ain goraldia izanik
beregoralpena etzuala ezagutu ta lau
ankekoeñ mañara jetxita, auen autze-
ko egin zala* (1). Adimeneko ilunta-
sunak biotza laxter nastu zion, eta bi
ituñi usteldu oetatik etoñi izan oi-dira
gizaldi guztietan, okeñ, gezuñ, siniste-
auste guztiak. Jesukristo etoñi baiño
len mundua mataza nastu bat zan:
Jaungoikoaren ezaguera garbirik ere
eztakit ote-zegoan. Etoñi zan bada Je-
sus eta egiazko jakituriaren argi-iz-
piak zabaldu ziran, ilunpean bizi zira-
nak argia ikusi zezaten. Lurñañean

(1) Ps. 48.

zuzendu bear gaituan artizara Berak irasi zuan Eliza degu. Beste bidetik dabilena oker dabil, egiaren irakaslea berau degu-ta. Eta Elizakin eztabilena gezurak menderatu du.

Baiña Eliza egiaren irakaslea dala eztute askok uste, eta oregatik jaitzen dira bere kontra ainbeste. Israelgo zaindaria ordea eztu loak artu igarle santuak dionez (1) eta bera aldezteko noizik-bein gizon bereziak bialdu izan ditu. Oetatik bat ainbeste siniste-ausle edo *hereje* onbiurtu zituan Antonio doatsua degu, argatik *herejien Ma-lua* deitzen zaio. Bere jakituriaren indarez gezur eta oker guztiak baster-tuak geratu ziran. Irakuri ezazu bere bizitz-edestia, eta ikusiko dezu zenbat eri ta eridi bide onera ekañi zituan. Sinisle ona izan zaite eta Ama Eliz-Deunaren seme zintzoa.

(Gogañtu beza...).

Otoitza

¡O siniste-ausleak menderatu zint-tuan Antonio doatsua! Jaungoikoa-gandik iritxi zaiguzu ikasbide txarak

(1) Ps. 120.

eta *liberalkeriak* gure luñ bedeinkatu onetan eztezatela indańik artu. Kristoren *fedea* ta gure oitura onak zaitu itzazu sendi edo *famili* ta erietan, egiazko Argia dana Zeruan arpegiz arpegi ikusi dezagun. Amen.

(Iru Aitagure, Agur Maria ta Gloria).

Ikasbidea

Soldadu-agintari bat, beste asko bezela, Ama onaren magalean ikasizuan *fedea* galduta *masoi* egińik bizizan. Jaungoikoak oretik Andre on bat eman zion, eta *frututzat* alabatxo polit bat. Amak bere alabatxoari San Antonioganako zaletasuna erakutsirik, egunero Santuari esateko aginduzion: ¡O nere biotzeko Santua! nere aitari galdu duana biurtu zaiozu.

Zortzi egun zeramazkien otoi au egiten, ta berizten etzan aspertzen ume gaxoa.

Umea orela erabili baińo obeto egingo zenuke zer galdu dedan esatea, esan zion senańak. Emazteak begiratze gozo batekin erantzun zion: ¡Nigandik betiko aldendu naiko al zenuke?—¡A! ori ez; ori ez!—Begiraba, esan zion; galdu dezuna bilatzen

ezpadezu, nigandik aldendu bearko dezu; eta emazteari malko ugariak zijoazkion. Gizonak lañi baiño lañia-go galdetu zion: ¿Zer da ba galdu dedana?—*Fedea*, zure ama onak erakutsi zizun *fedea*. Nik ere zugandik enuke aldendu nai; baiña *fedea* ori bilatu bearko dezu; bestela.....

Gudari ori bere gelan sartuta, batera ta bestera ibili zan gau guztian esanaz: *¡fedea!* nere amaren *¡fedea!* nere alabatxoaren *¡fedea!*.... Biaramonean emazteari galdetu zion: ¿egun aundien bat ospatzen al dezute gaur?—Bai San Antonioren eguna.—*¡A!* tximeni-gañeko Santuaren eguna! Eskerak bada San Antoniori; eta bere emaztea laztanduaz esan zion: bai, bai; galdu nuana arkitu det. Eta Pranziskotañen Komentura joanda bere pekatuak aitortu zituan. Begira emazte on batek zenbat egin dezaken senark biotz gogorakoakin.

Onura edo frutua

Jaungoikoaren itzak biotza mindu gabe arzen du: pekakariantzat gozoa da, bere biotzari indarra ematen dio, eta berionak ekartzen dizkio.

(San Antonioren itzak).

Biotz-Otoitza

Gaiztoak zabaltzen dizkiguten za-reetatik zaitu gaitzazu, Jauna (1).

Laugarren Asteartea

Maite-Damun-Otoitza (50'ren orialdean).

Irakurkizuna

Calamitas.....

Gaitza igeska.....

Ondo esan zuan Job santuak gizona bere biztaldi guztian gaitzez betea dagola (2): gaitza gorputzean; gaitza aminan; gaitza adimenean; gaitza biotzean. ¿Nor aldendu diteke gaitz auetatik?—Inortxo ere ez lur-gañean. Gutxi edo asko pekatu egiten ez duanik ezta bezela, gazi-gezik gabe ezta inor, pekatuaren zoia da-ta.

Eta jai! zein ikuskari negargarria aurkezten zaigun sendi edo *famili* ta erietan! Miña, oñazea, naigabea ikusten da alde guztietan.

(1) Ps. 90.

(2) Ps. 90.

Baiña Jaungoikoaren esku-zabale-
tik datorkigu guztia, or' goi-aldera
gure begiak jasotzen ikasi dezagun;
emen erbestean bizi bai-gera. Gure
betiko bizitegia zerua da, eta Noe ur-
gañean ibili zan bezela, emengo gai-
tzak baiño gorago bizitzea nai du
Jaungoikoak.

Jaungoikoak estutu bai; baiña ez-
tuala iñor itotzen esan oi-da, ta ugal-
de aroak gugandik askotan aiendu
izan ditu: batzuetan Berez, besteetan
bere mirabien bidez. ¡O zenbat gazi-
geza gozatu izan dituan San Antoniok!
Berak, Job Santuak bezela, ondo esan
dezake: *itxuentzat begia ta erenen-
tzak oña dala* (1). Beartsuen Aita zan
eta etzekian iñori ezer ukatzen. An-
tonio Amaren zabeletik erukitsua
atera zan eta erukia urteakin azitzen
joan zizaion. Bere bizi guztia on egi-
ten igaro zuan: eriai onbideak erakus-
ten; Eliz-Ama aldezten; gaxoak sen-
datzen; beartsuai bere esku zabala
luzatzen. Bearéan zauden ori zuzendu
zaite San Antoniogana.

(Gogartu beza.....)

(1) Job. 29.

Otoitza

¡O Antonio maite-maitekoña! orain zerutik gure gaitzak obeto ezagutzen dituzun ezkerro, eruki zaite gutzaz eta zure esku ongileaz lagundu zaiguzu. Arindu itzazu gure zamak Jaungoikoaren mendi santuetara zorionez eldu gaitezten. Amen.

(Iru Aitagure Agur Maria ta Gloria).

Ikasbia

Bi oñetatik baldaturik geratu zan gizon bat, bere *familia* zerekin mantendu etzuala zegoan. Sendagilietzaz etsita, San Prantzisko-komentuko elizan zegoan San Antonioren aurera eramateko eskatu zuan. Atsegin ematearen bazeramaten ba, eta bidean ari aundi xamar batekin zijoala igeri zuten. ¿Zertarako dezu ari ori? Galdetu zioten.—Tira, tira, aurera: baldin San Antoniok sendatzen ez banau ari onetzaz apurtua geratu bearko du. Etzeraman *fede* ta itxaropen aundia; eta bere ariakin San Antonioren aurean jarri zan.

Ala gaizki zeudela-ta, aora eramateko ogi pixka bat etzutela-ta, aren

bi oñen sendatza Jaungoikoagandik iritxi zezaiola eskatzen antxe egon zan. Santuak entzun ziola gero ikusiko degu; baiñan elbariak etzuan asko



uste. Abiatu nai zuan eta ezin. Orduan aña erabiz artuta tira zion.

¡O Zein arigaría dan Jaungoikoa bere Santuetan! An itxadoten zion San Antoniok. Gizonak tira zion aña

pilota bezela artuta berari tiratzeko jañi zan. Baldatua lañi baño lañiago ezer oartu gabe elizatik igesi aterazan, eta eraman zutenak atxitu arte jo batera ta jo bestera dana zoratua ibili zan. Orduan ezagutu zuan Santuaren esku ongilea, ta bere okeñaren barikapena eskatu zion. Mirari onekin ondo geratu zan *famili* guztia.

Onura edo frutua

Emengo aberastasunak eta gorputzeko osasuna loitarñtean dagon kañabera bezela dira; Azaletik eder; barundik utsak.

(San Antonioren itzak).

Biotz-Otoitza

Nere anima sendatu ezazu Jauna, zure kontra okeñ asko egin ditu-ta (1).

Boskañen Asteañtea

Maite-Damu-Otoiza (*50'ren orialdean*).

(1) Ps. 40.

Irakurkizima

Daemon.....

Diabrua igeska.....

Diabruak betiko ondatu nai gaitu-
la, ezin ukatu ditekena da. Oregatik
Pedro Apostoluak esaten digu: *ernai
bizitzeko, gure etsai, diabrua, leoia
bezela infernura eramateko gure ani-
mak irentsi naian dabilela-ta* (1).
Baldin Jesus-Seme-Jaungoikoa zirika-
tu bazuan. ¿Zer egingo eztu gure kon-
tra? ¿Zer zare zabalduko eztizka
kristauari or nastuta infernura era-
mateko? ¿Eta munduak aurkezten
duana besterik bai al da diabruaren
zare zabal bat ez-ta?

Apainkera lotsagarri ori... antzerri
edo *teatro* gaiztoak dirala-ta, zineak
dirala-ta dantza nastu ta bilera txar-
ak dirala-ta, diabruak bere jaraitzaien
bidez zabaltzen dituan zareak dira.
Gea galgarri onetan mendeko asko
dauzkan lendakaria edo *kapitana* dia-
brua bera da. ¿Eta Kristauak nor ar-
tuko du bideaurerako, erazo gaiztoeta-
tik aldeztu dedin?—Jesus-Gurutzal-
duari begiratu beio San Antoniokin.
Iltzez jositako oñ oiek erakutsiko

(1) S. Pet 5.

diote pekatutik bere oiñkadak atzeratzen; bere esku zulatuak esango diote bereak nola ibili biar dituan; arantzaz zauritutako buru orek bere arokeri ta aundikeriak goi-beratue-razoko dizkio.

Aragikeriaren su-garretan bizi zeran kristau ori, Jesusen Biotzean sartu zaite, bere zугanako maitasuna gogartu ezazu, zугatik zer egin zuan etzaite aztu, otoi-zalea izan zaite. Baldin otoiaz eta arduraz diabrua menderatzen ezpadezu, berak menderatuko zaitu, eta betitasunean zoritxañekoa izango zera.

Gogartu beza.....)

Otoitza

Diabrua ainbeste aldiz menderaiu zenuan Antonio doatsu orek, mundua, diabrua ta aragia menderatzeko *grazia* iritxi zadazu Jesu-Garaitzaela-gandik, zeruaren jabe egiñik, onai agindua dagon burestun edo *koroï* edera artu dezadan. Amen.

(Iru Aitagure Agur Maria ta Gloria).

Ikasbidea

San Antoniok diabruaren kontra

duan esku altsua gertaera auek atzaltzen digute.

Bein praileak, ilunabareko elizarendiak eginda gogaŕketan zeudela, beren ongile baten mastia ebaki ta ondatzen zebiltzan gizon ozte aundia ikusten zutela iruditu zitzaien. Bereala joan ziran Santuagana zer ikusten zuten esatera, eta onek erantzun zien: ¡bai zera! Zoazte zuen gogaŕketara, zuei ori galerazo naian diabrua dabil-da. Eta alaxe zan: biaramonean mastia matxura gabe arkitu zuten.

Beste batean San Antonio *komentu* batera joan zan, eta praile bat aurkeztu zitzaion, aragiak ixtilu gogorean jartzen zuala esanaz, eta bere barungo soñekoa eskatu zion. Santuak kupiturik eman zion ba, ta jantzi zuan unetik kilika txararak betiko aien-du ziran. Lili garbien artean bazkatzten dan Santu onen garbitasuna emen ezagutzen degu.

Onura edo frutua

Kristoren zauriak bere Aitari gure alde eruki eske dauden beste ainbeste mingain dira.

(San Antonioren itzak).

Biotz-Otoitza

Egizu, Jauna, zure iltzeak eta *lantza* goraltzen ditugun gudariok, betiko garaipena zeruan abestu dezagula.

(Eliz-añenditik).

Seigaren Asteartea

Maite-Damu-Otoitza (*50'ren orialdean*).

Irakurkizuna

Lepra.....

Legenaña igeska....

¡Zein gogoña agertzen dan Jaungoikoaren eskua pekatua munduan sartu zanetik! Gauz guztiak gizonaren kontra daudela dirudi. Gaitza gaitzaren ondoren, gizadia Jaungoikoak zauritutako gizon oztea da; burutik oñetara zauri bat egiñik dago. ¡O Zenbat miñ, oñaze ta naigabe eraman bear-dituan lurgain oñetan bizi danak!

Gaitz guztietan naskagariena legenaña edo *lepra* da: ikuste utsak naska ematen du, eta eztu olakoengana iñork ureratu nai ere izaten. Alare Eliz Ama Deunak ez ditu nolainai utzitzen gizarajo oiek. Bere Irasle-

Jesus bezela, bere eskua luzatzeko ortxe dago; eta berak zaitzeko etxe ta leku asko dauzka. Jesusek bezela ez ditu mirariz sendatuko, baiña bere seme ta alaba askok arinduko dituzte beren eramakizunak. ¡O zenbat mirari egin izan dituan karidadeak zoritxañeko oien alde!

Prantzisko gure Aita deuna, kupitasunak aietako bat laztantzera eramán zuan. eta ikutu utsaz sendatua laga zuan. Antonio doatsuak ere, Jesusen eta bere Aita Prantziskoren ikasbideak onarturik, adi berezia euki izan oi zien eta beren alde mirari asko egiter: zituan.

Begira ordea kristaua, beste legenañ naskagañiago bat badala etzaite aztu: baliteke gaitz oñek zeroñi jota eukitzea naska aundirik ematen ezpazidizu ere. ¿Zer dan bai-aldakizu gaitz ori?—Pekatua.—¡O zein itxusi ta naskagañi jañtzen duan zure anima! Baldin legenañ oñek joa bazaude, zoaz eta Jesusen ordekoari, apaizari, esaiozu *Ebanjelioko* legenañtsuak esan zuana: *¡Jauna! Zuk nai izan ezkeio sendatu nazazuke: nai det ba, erantzungo dizu, sendatu zaitte* (1). Eta

(1) S. Mar. 1.

berealaxe bere askitzaz edo *absolutioaz* garbitua geratuko zera.

(Gogañtu beza.....)

Otoitza

¡O Antonio maitakora! Gorputzeko ta animako garbitasuna iritxi zaiguzu, Jaunaren gogokoak emen lurgañean izanik, biotz garbikoai agundurik dagoan betiko zoriona iritxi dezagun. Amen.

(Iru Aitagure Agur Maria ta Gloria).

Ikasbidea

Bein legenañtsu bat Paduako elizara San Antoniori osasun eske zijoan. Bidean siniste-gabeko gudari edo *soldadu* batekin arkitu zan, eta au San Antonioren mirariak zorakeriak zira-la-ta iribaña, iseka asi zitzaion: baiña jaxoak etzion aintzakotzat ezer arñtu. Bere bidea jaraitu zuan eta elizan sarturik Santuaren aldare aurrean jarri zan.

Belaunbiko zegoala loak arñtu zuan eta lotan Santuak esan zion: zoaz eta

oltxu (1) oiek iseka egon zaizun gudariari emaiozkazu, oien beaŕean dago-ta. Legenaŕak joa zegoan igizara-joa! Santuak zer agindu zion adierazozion; eta gudaria dana lotsatua damutu zan; gezuŕezko siniskariak lagata bere pekatuak aitorturik Santuari osasuna eskatu zion, eta baita San Antoniok eman ere; bada bide txaraŕak lagata bere laguntza eske dijoazenai beti lagun egin izan die.

Onura edo frutua

Baldin zure urkoa aŕokeriz itxu badago apaltasunaren ikasbidez argitu ezazu: Aragikeriz legenaŕtsu badago, itz eta egintza garbiz sendatu ezazu: jan-edan geiegiz ilik badago, gabetasunaz berpiztu ezazu.

(San Antonioren itzak).

Biotz-Otoitza

¡Jauna! Zure beroan etzaidazu aseŕe egin. Eŕuki zaite nere animaz gaxo dago-ta (2).

(1) Legenartsuak ibiltzen zituzten olak.

(2) Ps. 6.

Zazpigarren Asteartea

Maite-Damu-Otoitza (50'ren orialdean).

Irakurkizuna

Aegri surgunt sani.

Gaxoak bizkor dira jaiki.

Jesukristo gure Jauna guztien onerako etorri zan mundura. Bere egin-kizunik aundiena animak zeruratzea izan zan; baiña gorputzaz ere etzan aztu; gorputza ta anima bere eskuetatik ateriak bai-dira; eta biok sendatu nai izan zituan. Bere erakuspen eta ikasti ederez adimeneko iluntasunak aiendu zituan, biotza onerako bizkor-tu ere bai, eta danok zerurako bidean jañi giñuan. Baiña ori egiten zuan bitartean, bere esku ongilea ere luzatzen zion gaxoari, itxuai ikusmena ta goñai sentzumena emateko, eta elbarriak zuzentzeko. Bera ikusi naian ureratzen zitzaion jendea, bere al aundiaz sendatua geratzen zan-da.

Antonio doatsua, berez biozpera, gaxoen laguntzalea izan zan beti. Bere itz gozoak animarako sendakaiak ziran askorentzat, eta bere mirari aundiak gaxoak sendatzeko egiten zi-

tuan. Dienai ongi egiñaz bizi izan zan.
Jaungoikoa arekin zegoan-da.

Gaur egunean ere orduan bezela,
Antonio gaxoen sendagilea da. ¿Nork
zenbatu auen alde egiten dituan mira-



riak? Baldin anima edo gorputza ga-
xo badaukazu, Santu aundi oregana
zoaz, eta berak sendatuko zaitu.

(Gogartu beza...).

Otoitza

Gaxoak sendatzeko aiñ arđura aundia euki izan zenuan Antonio doatsua! gure animak gaxo daudela etzaite aztu, indarđtu itzazu bada, Jaungoikoaren adiskidetasunean azken arđte iraunik zeruaren jabe egin gaitezen. Amen.

(Iru Aitagure Agurđ Maria ta Gloria).

Ikasbidea

Italiako eři batean, andre baldatu batek zořtzi urđte zeramazkien oiean. Bere senarđak sendagilietzaz etsita, San Antoniogana osasun eske eramateko asmoa arđtu zuan. Iru egenen buruan gurditxo batean, Jaungoikoak dakien bezela, Padura eldu ziran, eta elizara aldaturik, Meza bat esateko agindu zuten. Senarđ-emazteak Meza entzuten zeudela, andreari euri gozo batek artzen zuala iruditu zitzaion. Berealaxe jaikitzen asi zan, eta an zegoan jaun batek zerbait lagun egin naiaiz, makuluetako bat eskeņi zion: ez, ez; eskarđik asko, erantzun zion gaxoak, eztet ořen bearđik, nere biotzeko

Santu orek sendatu nau-ta. Eta alaxe zan.

Paduañak mirari au ikusirik, beren Santuari esker onak agertzeko etzakitzen zer egin. 1894'ren urtean gertatua da mirari au, eta Maria Fatxin zuan izena andreak.

Onura edo frutua

Anima garbi zaitzeko bost gauza bear dira: biotzeko garbitasuna; gorputzeko gazi-gezetan eramana; ondasunetan biotz indara; apaltasuna; eta uritasuna.

(San Antonioren itzak).

Biotz-Otoitza

Zure ondoan jañi nazazu, Jauna, eta nai duana nere kontra jaiki bedi. (1)

Zoñtzigañen Asteartea

Maite-Damu-Otoitza (50'ren orialdean).

Irakurkizuna

Cedunt mare...

Itxasoaren bare...

¡Zeiñ izugarria izan bear duan ekaitz arreak itxas baruan dabilenentzat! Ur-mendiak eldu dira ontsi gaxoaren gañera. ¿Eta zenbat aldiz gizonak erioztakin buruka ibili bearko eztu? Eriotza ikaragarria da nonai, baiña itxasoan bezin belz ezta iñon aurkezten. Gizonak eriotza gañera datorkiola ikusten du ezaguera oso-osoan, eta min garatzak biotza estutzen diote. Eriotza bera baiño ere gogoragoa da estutasun ori. Biotza Jaungoikoa-gana zuzendurik, orduan dio Apostoluakin: *¡Jauna, zaitu nazazu galtzera noa-ta.* (1) Eta Jesusek fedez deitzen dionaren eskariak entzunik eskua luzatzen dio, eta itxasoak eta aizeak baretzen dira.

San Antonioren bizitz-edestia irakuri besterik eztago, itxas-gizonen alde bere esku ongileak egin dituan mirariak ikusteko. Iluntasun guztiak aientzen dituan argia da bera. Beronek biotzez deitu diotenak kaiara eramane ditu.

(1) Math. 8.

Nor da itxasoak eta aizeak esagiten dioten ori? (1) Paduako Antonio doatsua.

Begira kristaua, mundu au itxaso aro bat dezula etzaite aztu. ¿Zer ekaitz gaizto jaikiko ezta zure anima gaxoa galdu naian? Biotzez zuzendu zaite San Antoniogana, eta pekatuko arixkuetan berak zaituko zaitu.

(Gogañtu beza...)

Otoitza

¡O Antonio doatsua! gure griña txarren ur aroak anima nola jañtzen diguten ikusten dezu. Zure esku ongilea luzatu zaiguzu bada, eta barungo pakea ta patxara ekañi zaizkiguzu. Egi zu griña txar guztiak lotu ditzagula, egiazko pakez emen eta goi-bizitzan zorionekoak izan gaitezten. Amen.

(Iru Aitagure. Agur Maria ta Gloria)

Ikasbidea

1630'garren urtean, Kalabriatik Napolos aldera itxas-ontzi bat sedaz za-

(1) Matts. 8.

matua zijoala ekaitz izugarí batek galtzeko zorian jaí zuan. Urak mendiak bezela zetozen ontzi gañera, ta nai-ta-naiez ondora joan bear zuala zirudin. Asten dira San-Antoniori deika, eta Santuak agertuta esaten die: ez bildurik izan, laga nere esku ontzia, nik zuzenduko det; eta olaxe gertatu zan. Itxasoa bareturik, ontzia ezeren eragogozpenik gabe kaian zaítu zan.

Onura edo frutua

Babilonia, mundu, nastu oírtatik iges-egizu ta zure anima salbatu ezazu. (1)

Biotz-Otoitza

¡Jauna! Zure begiñiñiak bezela zaitu gaitzazu, eta zure egoen itzal-pean aldeztu gaitzazu.

(Eliz arénditik).

Bederatzigaren Astearteá

Maite-Damu-Otoitza (50' ren orialdean)

(1) Jerem. 15.

Irakurkizuna

Cedunt... vincula.

Lokiak azkatuak dira.

¡Azkatasuna! ¡Itz eztitsua, itz legu-
na, itz maitagarria! Gizona azkatua da
ta azkatua ere izan nai du. Baiña be-
gira, goratasun orrek etzaitzaia itxutu.
Azkatasunak adimenak eta zuzentasu-
nak erakusten dizkioten bidietatik al-
dentzen danean, bere izatea galtzen
du: ezta azkatasuna, gaiztakeria bai-
zik. Gizonak bere eginkizun guztietan
adimenaren argi-izpiak jaraitu bear
ditu; beztela ezta gizona lau-anke-
koen antzekoa baizik (1): eta Jaungoi-
ko-Egile bat badala ta goraltze ta
mendetasuna Beroni zor diola adime-
nak erakusten dio. Jaungoikoa goralt-
zea baiño obegorik ote da? Oregatik
dago idatzirik: *Jaunaren mirabe iza-
tea agintari izatea dala*. Egiazko az-
katasuna emen dago.

Gizona ordea gizañterako egiña da,
eta, Jaungoikoaren eta Eliz Ama Deu-
naren kontra eztaudenean, gizañteko
legeak ere bete beañean dago: nai da-
na egiñez bizi ditekela esatea zorake-

(1) Ps. 48.

ria da, eta ezpetxeko edo *karzelako* ateak laixter zabalduko dizka zorakeri oreak.

Baiña, eztira gaiztoak bakarrik az-



katasuna galtzen dutenak. ¡Amaikak erü gabe galtzen dute! ¡Makiñabat bes-teren txarkeriz espetxean egon izan oi-da. Jesus Bera lotua egon zan; Santu asko ere bai.

Eta Jaungoikoak espetxetuen eska-

riak entzungo ez ote ditu? Bai noski. Lege zaireko Jose azkatu zuan Jaungoikoak, aingeru bat bada ere bialiko dio, Pedro Apostoluari bializion bezela.

Aingeru ori San Antonio izan da askotan. Onek beren lokañi gogoñak azkatuta zaitu izan ditu.

(Gogañtu beza.....)

Otoitza

¡O gure bitaiteko Antonio doatsua! luñakin josten gaituzten lokañiz lotuak gaude gu ere. Puskatu itzazu bada, gure animak goiko gauzetara igo ditizen, gogoz zeruko biztanleak izanik, zure laguntzaz Jaungoikoak egunen batean zerura eramán gaitzan. Amen.

(Iru Aitagure, Agur Maria ta Gloria).

Ikasbidea

San Antonioren erukia berari deitu izan diotenen alde aundia izan da. Espetxetik asko atera izan ditu. Gudarari edo *soldadu* bat Milanen espetxean zegola Santuari azkatasuna eskatuta lotan geratu zan, eta biaramo-

nean bere burua Beronan ikusi zuan. Beste gudari bati espetxean agertuta, loturik zeukaten estuntzak autsirik, Paduara bere ilobia ikustatzera joateko agindu zion. Krakobian eru gabe espetxean zegoan bateri agerturik, juezetara joanda azkatzazuna eskatze-ko agindu zion, eta bere garbitasunaren agiritzat berak puskatzen zizkan estuntzak edo *kateak* erakusteko.

Onura edo frutua

Aria ariaren gain kare-ondarez jarita orma gogora egiten dan bezela, animan begizko pekatuari, belarita-koak daiaio, oneri mingañezkoak; eta begiak, belariak eta mingaña pekatuan sartzen diranean, oitura txaren orma laixter azalduko da. Zaitu bada zure sentzumenak.

(San Antonioren itzak).

Biotz-Otoitza

Nere lokañiak puskatu dituzu Jau-na, eta goraltzaren opa eskeñiko dizut. (1)

(1) Ps. 115.

Amaígaíren Asteaíte

Maite Damu-Otoitza (50' ren orialdean)

Irakuíkizuna

Membra resque perditas petunt et accipiunt juvenes et cani. Gauz, gorpuzki galduak eskatu t'artzen dituzte gazteak eta zaítuak.

Gorputzeko zati guztiak eztira bizi izateko beaítekoak; baiña auetako bat galtzeak gorputza asko itxusitzen du: Oíregatik ain maiteki begiratzen zaie ta berak osatzen alegintzen gera. Gorpuzki bat galtzea zoritxaík aundienetakoa degu.

Emengo osasunak galtzea ere eskergaitz aundia da guretzat. Gauzak guretzat egiñak dira, eta bide onez auen jabe egin giñezke, ez nolanai bizi izateko, beaít dan neuíz gozaítuta zerua irixteko baizik. Gure biotza zeruan euki beaít degu, gure egiazko ondasuntegia antxe dago-ta; betidiraun ondasuntegia, iñoiz uritzen eztana, ez lapurak kendu ta sitzak jango eztutena (1). Begira ba kristaua; baldin emengo gauzak neuíz maite izaten ezpadi-tuzu, zerukoak galtzeko arixkuan jaí-

(1) Math. 6.

ko zera. Oregatik ezbearen batez gorpuzki edo gauzen bat galdu badezu, Jaungoikoari egiten dizkazin eskariak neurtuak izan bitez. Baldintza auretik jarri ezazu; eskaiozu baldin zure onerako bada; eta Jaungoikoak etzaitu nolana lagako, gure Aita ona da-ta. Umienganako maitasun ori ezarri bade gurasoetan, ¿zer izango da Berak digun maitasuna? Jesusek bere biztaldian ondo agertu zigun. Eta bere esku ongilea luzatzeko geroago orixe biala digu gure San Antonio aundia. Ain ezagutua da Santu onen bitartekotasuna, zerbait galdu ta berari eskatu ezkeroz, galdutakoa arkitu ezutenak gutxi izango dira. Santuak bereganana dijoazenen eskariak entzuten bai-ditu.

(Gogañtu beza...)

Otoitza

¡O Antonio! Zugana dijoazenen gauzik txikienak arduraz artzen dituzun bitarteko ona? Baldin gure zoritxarez Jaunaren adiskidetasuna galduko bagenu, añen barikapena iritxi zaiguzu, bide onera biurturik, emen

luřgañean eta betitasunean maite izan dezagun. Amen.

(Iru Aitagure, Agur Maria ta Gloria)

Ikasbidea

Zerbait galdu, eta Santuaren bitartez galdutakoa arkitu dutenak, ezin zenbatu ala dira munduan.

Bein San Antoniok izkintzetarako berak eratu zuan liburu bat norbaitek ezkutatu ziola ezagutu zuan. Nork eraman ote-zion jakin ezian otoitzean asi zan (*armarik* onena otoitza baita) eta liburua ostuta iges-egin zuan praile-gai bat liburu ura bere tokira itzultzera bearitu zuan.

Diabruaren buruzpide txarez ostu zuan ezkerro, praile-gaia *komentura* ekaartzera diabrua bera bearitu zuan. Santuak barkatu zion gazteari, eta onek azken arte iraun zuan Anaidian. Zerbait galtzen danean, Santuari galdutakoa eskatzeko oitura, emendik datořela dirudi.

Onura edo frutua

¿Zer ajola dio gizonari luř-gauz

guztien jabe egiteak baldin bere anima galtzen badu? Bere animaren ordeztzer eman dezake? Galdu bear ez-teguna gure anima da (1).

Biotz-Otoitza

Jaunaren Erukiari eskerak orain arte galdu ez geraldako (2).

Amaikagañen Astearte

Maite-Damu-Otoitza. (50'ren orialdean)

Irakurkizuna

Pereunt pericula...

Arixkuak dira galdu.

Paulo Apostoluak dionez, alde guztietan arixkuz inguratuak gaude: arixkuak etxean, arixkuak kanpoan, arixkuak lagun artean, arixkuak bakarian arixkuak itxasoz, arixkuak legorez. (3). ¡Apostoluak diona geok ondo ikusia degu! Gure bizmena ari batetik zintzilik dago, ta ain mea da ari ori,

(1) Math. 26.

(2) Thren. 3.

(3) Ad. Cor. 11.

austeko uskeri bat aski da. ¡Zenbat arixkuren artean ibili bearko eztegu! Gure bizmena gure eskuetan dagola esan ote genezake? Gaitzak, miñak, oñazeak noznai gañean ditugu; eta gure anima gaxoak dabilzkien istiluak eztira gutxiago: diabruak, leoi amoratu batek bezela, irentsi naian nonai erasoten dio; eta aragiak atsegin zikiñetara eramán naian dabilki. Jaungoikoa ordeá gure alde daukagu, eta Berari deitu ezkeró ondo geratuko gera.

San Antonio-zaleak bein baiño gei-agotan bere esku ongilea nabaitu zuten, berari deitzen diotenen lagutzalea da-ta, auen kaia ta estalpea. Augatik arixkuetan jendeak San Antoniogana jotzen du; ta ez alperik.

(Gogañtu beza...)

Otoitza

¡O gure Laguntzale zintzo Antonio doatsua! zenbat arixkuren artean gabiltzan ondo dakizu. Añean jañtzen zaizkigun erorbideetatik zaitu gaitzazu. Egizu añen itxas año onen erdian galdu gabe ibili gaitezela, beti-

ko kai edeñera eldu gaitezen. Amen.

(Iru Aitagure, Agur Maria ta Gloria).

Ikasbidea

Bein, gaur asko bezela, senar-emazte batzuek etziran ondo etortzen. Gizonak, nai zuenakin ibili ondoren, zigora dantzatzen bazekian noski. Andre gaxoa bere bizikera txaraz etsita lokariz bere burua urkatzeko asmoan jarri zan. Berietakoa egiteko zegoala, ilunar batean bi prailek atea jo zioten. ¿Nortzuek zerate? atea erekita galde-tu zien.—Praile bi, anai Prantzisko ta anai Antonio, erantzun zioten. Gau ontarako ostatua nai genuke ta eman bear diguzu.—Baita pozik alare, esan zien andreak. Zuen Anaidia asko maitete det, eta San Prantzisko ta San Antonio oso kutun ditut.

Apaltzen eman ondoren, gizon aien onginaia ikusirik, bere gazi-gezak esaten asi zan, eta nola gau artan bere buruari bizmena kentzeko zegoan, senarakin ezin burutu zuala-ta. Gogorki ase-re-egin zioten, baita Andreak damuturik aitoruko zala agindu ere. Oeratzeko beren geletara bialdi zituanean, bi *erlijioso*, San Prantzisko

ta San Antonio, andre ongilearen senarari, lagunakin zebilen lekuan azaldu zitzaizkan. Ederak botata, bere andrea bere buruaz etsirik bizmena kentzeko nola egon zan esan zioten, ta San Prantzisko ta San Antonio zirala. Zoaz andreagana, barkapena ekaiozu, ta zure andreakin pakean bizi zaite. Alaxe egin zuan. Edestu zion emazteari gertatutakoa, biok bi prailak sartu ziran geletara joan ziran, eta etzuten inor arkitu. Aurerakoan pake santuan bizi izan ziran.

Onura edo frutua

Aingurak edo *ankorak* itxas-ontziari euzten dion bezela uren indarez arkaitza jo eztezan, eriotzaren oroipenak animari euzten dio pekatuan erori eztedin.

(San Antonioren itzak).

Biotz-Otoitza

Nere etsaietatik zaitu nazazu, Jaina zuri deika nago: Zure naia egiten erakutsi zadazu, nere Jaungoikoa Zuzera-ta (1).

(1) Ps. 142.

Amabigaren Asteartea

Maite-Damu-Otoitza. (50'ren orialdean).

Irakurkizuna

Cessat et necessitas...

Eta beara da aiendu

Mundu onetan ezin giñezke guztiok



berdiñak izan. Gizartean beartsuak
izan bea dutela Jesukristok Berak

esana da (1). Aundiak eta aberatsak izateko ¿zer zorakeri egiten ez dituzte gizonak? ¿Zer dala-ta? Zerura begiak jasotzen ez dituztelako. Ez dute gogorutzen lu¿gain au erbeste bat dala: gure biotzaren gosea ase dezaken lekua zerua dala; o¿regatik nai dituzte emengo aunditasunak, aberastasunak, atsegiñak. Baiña zoritxar¿koa emengo gauzetan itxaropena ja¿rtzen duana. Aberastasunak galbideak izango ditu, Judasentzat izan ziran bezela. Jesukristok etzuan iñoiz aberatsik gorraldu, eta *zoriontsua deitzen dio beartsuari* (2). *Oneu estalpea ta zaitzalea Bera izango dala, dio David igar¿leaz* (3): *Berak lagunduko diela, eta Berak aldeztuko dituala*. Goga¿rtu bezate au ondo bea¿rean eta ezizanean bizi diran gizarajoak: *zuzendu Jaungoikoagana ta zuen anima inda¿rtuko da, dio igarle berak*. Beartsuai dien maitasunaz, beretzat a¿rtzen du oiei egiten zaiena.

Paduako Antonio doatsuak ere, zeruko Aitak bezela, maitasun berezia zien beartsuai. Etzuan iñor lagundu gabe iñoiz utzi. Bestela eziñean mira-

(1) Math. 26.

(2) Math. 5.

(3) Ps. 45.

riz laguntzen zien. Egiz eta benetan ordea Jaungoikoa bakarrik da aberatsa: guztiok beartsuak gera: jateko ta edateko naikoa izanda ere, ¿zenbat gauz bearko ez dituzu? Zoaz bada San Antoniogana bere biotz kupikoarak e tzaitu nolanai utziko.

(Gogañtu beza...)

Otoitza

¡Beartsuen laguntzale zoriontsu Antonio gure biotzeko kutuna! Ikusten dezu gure animak onoimen edo *bertute* bearean egonik, biotza bete ez dezateken uskeriak nai dituala. Egizu goiko ondasunak opa ditzagula, eta gure anima *graziaz* aberasturik, biztaldi au igarotakoan Zeruari jabe egin gaitezela. Amen.

(Iru Aitagure, Agur Maria ta Gloria).

Ikasbidea

Ainbeste beartsuri lagundu izan die San Antoniok, egoki esan diteke, bere naiaz egiazki beara aientzen dala.

Napoles-urian, ereslari edo *musiko* bat, izen aundikoa izanagatik, ezizanik aundienean bizi zan. Erómara al-

datu zan; baiña alperik; etzuan irabazteko biderik arkitzen. Asi zan *ereguka* San Antoniori, eta Santuaren egunean aitoritu eta Jauna aritu ondo-rean, elizatik ateratzeakoan, ezagutzen etzuan batek diru mordoxka zederá eman zion; etxeratu zanean Jaun batek bialdu zizkion bizigañi ugaria-kin arkitu zan; eta egun gutxi bañu Espoletoko ereslari-nagusi izendatua zegoala esaten zion idazki edo *karta* bat aritu zuan.

Onura edo frutua

Limosnari zoñoa deitzen zaio, or sartzen dana zeruan arkitzen da-ta.

(San Antonioren itzak).

Biotz-Otoitza

Jauna, egizu aberatsak bere ogia-
ren zati bat beartsuai eman dezai-
ela (1).

Amairugañen Asteartea

Maite-Damu-Otoitza (50'ñen orialdean).

(1) Isaias 58.

Irakurkizuna

Dicant Paduani...

Padutañai galdetu.

Luñgaiñ onetan zoriontasun osorik ezin. Aberats, danik eta ongiena bi-ziagatik, ez beařen bat aurkeztuko da eta arantzen batek zulatuko dio biotza edozeñi. Baldin aberatsa bada, osasunak agian eztio lagunduko. Aberatsa ta osasun onekoa bada, gazi-geza pranko eraman beařko ditu. Ez, zoriontasun osorik emen eztago. Zoriontasun osoa, betea, ornitua Goi-an dago; gure egintza onen saritzat emango zaigu. Goiko zoriontasun ori opa beař degu bada; gure oinkada guztietan ara jo beař degu.

Emen ere ordea zerbait nai genuke; eta Jaungoikoa, Aita Ona bezela, esku zabalekoa agertzen zaigu. Kanpo-ko txoriak luma edeřez jazten ditua-na, ta landarak eta zuaitzak lorez apaintzen dituana, ezta aztuko gutzaz.

Jaungoikoak gure alde duan arđura au bera nolabait agertzen digu San Antoniok ere: Ez-beařetan estalpea ta laguntzařea bai-ta. ¿Zer da San Antoniok egin ez dezakenik? Gorputzeko ta animako gaitzak sendakia bere

maitasunean daukate. Bere bitartekotasuna Jaungoikoaren aurrean azken gabea dala dirudi. Jaungoikoak maite du, ta San Antoniok maite gaitu. Oregatik Jaunari gure alde eskatzen dio, eta Jaungoikoak bere eskariak entzuten ditu. Ezta elizik, ezta etxerik San Antonioren irudien bat eztuanik. Onek esan nai digu nonai esku zabalekoa azaltzen dala.

(Gogañtu beza...)

Otoitza

¡Estutasun eta bear guztietan gure estalpea zeran San Antonio ariñaria! gure animen bearak ondo ikusten dituzu. Sendatu itzazu guztiak Zeruan goraldtu zaitzagun, oren ongilea egin zinuñuan Jaungoikoa maitatuaz. Amen.

(Iru Aitagure, Agur Maria ta Gloria).

Ikasbidea

San Antonio il da laxter, Ezzelinok bere iloba baten bidez izugarriak eginak izan bear zituan Paduan. Bizirik bildur zion; baiña il ezkerro, bere asmo ta griña txarai eragozpenik jariko

zionik etzuan uste. Jaungoikoak daki bere gudariak urian sartuta bizia zenbati kenduko zioten. Laugarren Alejandro Aita Santuak, Ezzelino doibazkaturik edo *exkomulgaturik*, gudozte aundi bat bializuan uria aldezteko. Onela zeudela San Antonioren lagun izandako bi praīle estutasun ar̄tatik onez ateratzeko eskatzen asi zitzaizkion, bestela galduak zeudela-ta. Bere gorpuzkiak zeuden kutxatik ateratzen zan abots bat entzun zuten: ez bildurik izan; nere jai-eguna baiño zortzi egun aur̄etik, zuen etsaiak aienduko dira. Eta alaxe gertatu zan. Ezzelinoren īloba or̄ek, lagunak ezezkoan bazeuden ere ozte aundiagoa zutelako, uria pakean lagata igesegin zuan.

Onura edo frutua

Jaungoikoa gure alde egon ezkeror
¿nor gure kontra? (1).

Biotz-Otoitza

San Antonio zaitu nazazu.

(1) Ad. Rom. 8.

BEDERATZIURENA

San Antonioren eguna ondo ospatzeko egoki etorriko zaizu aurrez bederatziurena egitea. Egun auetan aldituzun egiterik onenak egin itzazu. Egunero Jaunartzea.



ongi izango da, ta ezin badezu, gogozko Jaunartzea beintzat egin ezazu. Baldin elizara ezin joan baziñezke etxean alda-

retxo bat egin ezazu Santuaren irudien bat an jartzen dezula, eta bere onomen edo *bertuteak* antzeztutzen alegindu zaite.

San Antonioren batzar *Pia Union* sartua bazaude zazpi urteko ta zazpi berogeiko barikapenak irabaziko dituzu egun bakoitzean.

Gurutze Santuaren...

Eguneroko maite-damu-otoitza

Jesukristo nere Jauna, Jaungoiko ta gizon egiazkoa, nere Egile ta salbagilea, zerana zeralako ta gauza guztiak baiño maiteago zaitudalako, damu det Jauna, damu det biotz-biotzez zu naigabetua. Asmo sendoa artzen det ez geiago pekaturik egiteko, Zu naigabetzeko bide guztietatik alde egin, aitortu ta oben-nekea betetzeko. Amen.

(Nai bada Amairu astearteetako damu-otoitza esan diteke.)

Lenengo Eguna

Irakurkizuna

San Antonioren sinismena edo fedea.

Jesukristok Ebanjelio santuan dio:
Gizonen aurrean nere alde jartzen

dana, Nik nere Aitaren aurrean aldeztuko det; baiña gizonen aurrean ukatzen nauena, Nik ere nere Aitaren aurrean ukatuko det. (1).

San Antoniok dionez egintza onaz gure fedea garbi ta argi agertu behar gaudela itz auek ondo agertzen digute. Kristau-eran sinistu, ta egintza onaz sinisten deguna ez agertzea. Jaungoikoari iseka ta para egitea da.

Berak egin behar au ondo bete zuala garbi aski dakusgu. Bere ibilera ta egintza guztietan David igarlearen itzak esaten zituala dirudi: *nere biotz guztiak aitortuko zaitut, ¡O Jauna!* (2). Gaxoak sendatzen bazituan, erenak zuzendu, itxuai ikusmena eman eta beste mirariak egiten bazituan, biotz baruan zeukan sinismenaren agerpena zan guztia, denbora aietako siniste-ausleak bide onera ekartzeko.

Gaur egunean Antonio-zaleak asko dira, izenez beintzat; baiña ondo begiratzen bazaie, inoren esamesa saktik ezer egiten ez tuten sinisle legoraien antzekoak dira asko. Lagunen esamesak lotutzen ditu; Kristau onak bezela agertzeko lotsa dira; etxe ba-

(1) Math. 10. Lucas. 9.

(2) Ps. 137.

ruan eta elizan egiten dutena besteren aurrean egiteko kemen gabe daude.

Oñlakoak eztira egiazko sinisleak, ezta egiazko San Antonio-zaleak ere. Oñela bizitzea Jaungoikoari iseka ta para egitea da; eta Jaungoikoari para egiten diona San Antonio-zalea ezin izan.

¡O Antoniotara! etzaite bada iñoiz zure fedez lotsatu, nonai Kristau ona izan zaite.

(Gogartu, eta eskatu beza bakoitzak opa duana).

Otoitza

¡O nere Jaungoikoa! dana lotsatua apalki zure oñetara natoñkizu. Oraindik eztet galdu bataioan eman zenidan sinismena. Baiña ¡ai! ainbat *grazi* galdu ditut!

Orain ezagutzen det nere *fedea* oso epela dala. Alaz-gutztiz ere San Antonioren fedek indartzen nau zure egiazko jaraitzale izateko. Onetsi itzazu, Jauna, nere asmoak, eta Santu maitakoñ oñen bidez emaidazu opa dedan *grazia*. Amen.

(Iru Aitagure agur Maria ta Gloria).

Ikasbidea

Rimini deritzaion Italiako uri batean, berebiziko itzaldiak egiten zituan San Antoniok siniste gabeak bide onera ekañi nairik. Baiña alperrik: bere itza aizeak eramaten zuan itza zan. Etzuan oretik Santuak etsi; eta Jaunaren igarpenez itxas-basterera joanda araietara onetan asi zan izketan.

Itxas-baruan zaudeten araiak atozte, eta Jaungoikoaren itza entzun, sinistegabeok entzun naieztuten ezkerok. ¡Arigaria! Araiak beren buruak urpetik aterata berealaxe ereskadetan jaririk Santuaren itza entzuten jarri ziran.

Mirari onen berria laxter zabaldu zan urian, eta baita ezin zenbatu ala jende batu ere miraria ikusi nairik. Orduan San Antoniok dienak ariturik zeudela ikusita, ekin zien beren itxutasuna itxusituaz, eta Jaungoikoak daki zenbat onbiurtu zituan.

Onura edo frutua

Fedea animaren bizmena da. Kristo

fedear bizi da gure biolzetan S. Paulo apostoluak dionez (1).

Erantzunkaria (55'garen orialdean).

Bigarren Eguna

Maite-Damu-Otoitza (102'garen orialdean).

Irakurkizuna

San Antonioren itxaromena edo *esperantza*

¡Zein atsegin aundia ta neurigabeko zoriona daukan Jaungoikoak guretzat, baldin gure biztaldiak dirauen artean bere naia zintzo egiten badegu!

Fedearen egoz joiak jorik, itxaromenaren argi-izpiz zerbaít ikusi genezake; San Antoniok dionez, itxaromena aritzeko dauden ondasun eta aberastasunen igurimena da-ta. Onoimen edo *bertute* onek Jaungoikoaren aurrean apal egiten gaitu; beronek Berraganako zaletasuna biotzean ernatzen digu. Zorionekoak gu azken arte Jaunaren maitasunean irauten badegu, Zeru edera guretzat izango da-ta. Ja-

(1) Ad. Eph. 4.

ungoikoak alaxe agindurik dauka, ta Jaunaren itzak eztu uts-egingo.

San Antoniok emen beko uskeriak oinperaturik, Jesusen agintsarrietan itxaropen guztia jarita, betiko bizitegitzat Zerua besterik etzuan bilatu. Baiña berez gutxi zezakeala ezagutzen zuan, eta bere biotza ta begiak Jaungoiko Alguztidunagan jartzen zituan Berau goralduez, itxaromen geiegia arokeriz jantzia zegoala bazekian-da. Itxaromenak neuriz ibiltzeko bildur santua laguntzat artu bear du. Au dala-ta ainbeste izerdi tanta bota zituan bere *salbazioa* irixteko.

¡O Antoniotara! ¿Zerura joan nai aldezu?—Bai noski. Begira ba, baldin egintza onik gabe ara joan nai badezu, oker zabilta, aroa zera, ta San Antoniok dionez apaltasunaren apurik ere eztezu, ta apaltasuna Zeruko atea da.

[Otoitza

¡A Jauna! Zenbat aldiz ibili naizen zure agindu santuak aztuta, nere indarretan uste osoa jaririk. Nastua ta biotz gabe lagatzen nau gogapen onek. Eruki zaite ordea, Jauna, ni-

tzaz, apalki zure maitasunaren eskue-
tan jaítzen naiz-ta. Onoimen edo *bir-
tute* onetan San Antoniori jaíraitzeko
indaía emaidazu, ía bere irabazia-
katik, eta bere bitartez nere estutasu-
netan lagun zadazu. Amen.

(Iru Aitagure, Agur María ta Gloria).

Ikasbidea

Bein Portugalgo uri batean diabru-
ak arítutako emakume erukaí bat bi-
zi izan zan. Alako batean gaxotu zan
andre ori, ta sendagileak zionez lax-
ter il bear zuan. Bere aideak zer bizi-
kera egin zuan jakiñik laí baíño es-
tuago, aitoítzeko eratu naian asi zi-
ran, baíña alperík; konfesio izenik ere
etzuan entzun nai. Bere bizikera txa-
rean oretik, San Antoniori oneraspen
pixka bat eukia izan bear zuan, eta
onetxek zoriona ekaí zion.

Egun arítan praile txikar bi, gaixoa
ikusí nai zutela-ta etxe arítan sarítu
ziran, eta bere aurean jaírik esan
zioten: begira gaizki zaude, ta laxter
il bear dezu; egia da zure pekatuak
izugaíriak izan dirala, baíña Jaungoi-
koaren erukiak neuririk eztu. Aitoítu
zaite bada betiko galdu etzaitezen.

Bi prailien itzak goiko intz gozoak bezela izan ziran aren biotz gogora biguntzeko.

Itxaromenaren argi-izpiak jo zuten, eta eriko eliz-buruakin konfesio on bat berealaxe egin zuan. Il arte etzuten laga bi praileak. Aidien poza aundia zan; eta prailiai beren esker ona agertzeko joan ziranean etzituzten arkitu. San Prantzisko ta Antonio zirala orduan igeri zuten; eta alaxe ziran.

Bein jaun batek bakartegi batean zebilela aika zegoan norbait entzuten zuan: alde guztietara beguiratuta etzuan inor ikusten. ¿Nor zera aika zabilzan ori? ¿Eta zer nai dezu? galdetu zion.

—¿Zer nai dedan? Amaika urte orain il dan andre oren naia egiten igaro ditut, eta bere anima nerekin eramateko nengoanean, bi prailek kendu didate. Ona emen zenbat balio duan San Antonioganako itxaropenak.

Onura edo frutua

Uste oso-osoaz Jaunaren eskuetan

jañi zaite. Au egiten duana ezta nas-
tua geratuko. (1)

(Bukaera egunero berdin).

Irugañen eguna.

Maite-Damu-Otoitza (*102' ren orialdean*)

Irakurkizuna

San Antoniok Jaungoikoari zion
maitasuna.

San Antoniok santutasuna etxe bat bezela aurkesten digu. Santu berak dionez, etxe onen oñaria, sinismena da, bere ormak itxaromena: baiña oraindik etxea ornitu gabe dago, telatua eta apaingariak bear ditu, eta buru ori eta apainduri oiek maitasunak ematen dizkio. Bai gure ongoien burua *Karidadea* da, onek elkartzen gaitu Jaungoikoarekin.

San Antonio, Jaungoikoa ezagutu zuan bezin laxter Berau maitatzen asi zan; ez nolana, Jaungoiko Berak eskatzen duanez, biotz guztiaz eta indar guztiz baizik. Karidade onek indartzen zuan onbideetan aureratze;

(1) Ps. 70.

añitzen gaituzte mirari aundi aiek karidade au zala-ta, egiten zituan.

Dan-dana Jaungoikoari emana egonik ondo beriztu zezaken Paulo Apostoluak esaten zuana: *enaiz ni bizi, Kristo bizi da nigan.* (1) Bere itz, gogapen eta egintzak Beroni eskaintzen bai-zizkion.

¡O Antoniotara! Santu onek bezela Jaungoikoa maite izango bazendu, bere legea betetzeko eragozpen aundirik etzenuke izango, eta onbideetan zure aurerapenak aundiak izango lirake. Baiña Jaungoikoa egiz maite eztezu, ta orétxegatik zabilta érenka, érenka. Begira ba Karidaderik ezpadezu pekatuan zaude, eta pekatuz egiten dezunak, Zerurako eztizu balioko

Gogañtu beza...)

Otoitza

¡A Jaun maite-maitagaña! Zein gutxi oraindano maite izan zaitudan, zu maitatzeko gairik asko izan badet ere. Zure aurrean jañtze utsak lotsatzen nau, esker gabea izan naiz-ta. Oker-egiñaren damu naiz, eta begiak

(1) Ad Gal. 2.

negarézko iturí bi egiñik, Agustin Santuakin esango det: ¡Ai ene! ¡Ai ene! maitasun agiririk ezpadiot eman Jaungoikoari! San Antonioren biotzean su-gar zegoan maitasunaren txingar bat emaidazu, Jauna, emen lurrean zu maite izan da Zeruan arpegiz ikusi zaitzadan. Amen.

(Iru Aitagure, Agur Maria ta Gloria).

Ikasbidea

Jaungoikoaganako maitasuna egin-tzaz agertzen da, eta egintza txikiz aundiz baiño ere obeto; Jesus berak dionez, txikietan zintzoa danak aundiak eztitu nolanai lagako-ta.

Zein gogokoak dituan Jaungoikoak gertera onek erakusten digu. San Antonio elizkizunetan oso zintzoa zan, eta eginkizunik txikienak arduraz artzen zituan. Montpelier-urian Pasko egunez bere itzaldia egiten ari zala *Alleluia* bat *koruan* abestu bearean zegoala oroitu zan, ala itz-eman zuan-da. Inori ezer esan etziolako *koruan* nasten bat gertatuko ote-zan kezka miñ-ematen zion.

Alako batean izketan ari zala, *kaputxa* buruan jarita, itz gabe geratu

zan aldi batean: zer ote-zuan jendea laritzen asi zan, eta geroago jakin zuten ixilik egon zan aldi artan *komentuko koruan Alleluia* ura abesten egon zala.

Onura edo frutua

Maite izan ezazu Jaungoikoa biotz guztiaz, anima guztiaz, indar guztiaz. (1)

Laugarren eguna.

Maite Damu-Otoitza (*102^oren orialdean*)

Irakurkizuna

Lagun urkoaganako San Antonioren maitasuna.

Jaungoiko-maitasunak ornitua izateko geidearen maitasuna berekin eraman bear du. San Antoniok dienez, onela eldu liteke gizona Jaungoikoakin batutzera. Kristoren jaraitzale guztientzat bear-bearekoa da maitasun au: berau gabe eztago ez jaierarik, ez santutasunik, ez salbaziorik.

(1) Math. 22.

Onetxegatik maite izaten zuan geidea gure Santuak, gorputzeko ta animako estutasunetan bere esku ongi-
lea luzatuaz.

¡O Antoniotara! etzaite aztu zu ere lege au bete beárean zaudela: lege ori bete gabe, naiz aingeruen mintzaz itz-egin, naiz mendiak aldatzeko aibat *fede* izan, eztizu ezertxo ere balioko Jaunaren aúrean (1).

¿Nola bete dezu bada oraindaño? Auéerako ¿zer asmotan zaude? San Antonioren esakun au beti gogoan euki ezazu geidea beti maite izan dezazun. Jaungoikoa ta geidea maite dituztenak goiko aberastasunez beteak izango dira; *on-egin eta biziko zerate* onelakoaz esana dago-ta.

Otoitza

¡A Jauna! geide-maitasuna zure jaraitzalien ezaungarria bada, zure ikasle txara izan naiz ni, zure esanik eztet egin-da. Aginte ori bete ez izanaren damu naiz, Jauna. San Antoniok erakusten digun maitasun sutsuagatik agintzen dizut, auéerakoan obeto maite izango dedala: bere estu-

(1) S. P. I. ad. C. 13.

tasunetan lagunduko diot, eta bere txarakeriak aztuko ditut. San Antonio zure biotzeko kutun oren bitartez gorputzeko ta animako beartasun guztietan lagun zadazu. Amen.

(Iru Aitagure, Agur Maria ta Gloria)

Ikasbidea

San Antonioren aita bizi zan etxe-



ondoan gizon bat erailduta bere baratzara bota zuten. Santuaren aita era-

iletzat artzeko aña agiri ta ezaungari bazeagola-ta espetxean edo *karzelan* sarturik, urka-mendian iltzeko il-etsia izan zan. San Antoniok bere aita nola zegoan jakin zuanean Nagusien baimenaz Lisboara joanda, bere aitaren alde ekin zien, eta ain sutsu ta argibide askokin noski, dienak arituta laga zituan. Eta bere aita erugea zala obeto ezagutu zezaten, iltegiara eramane danon aurrean ildakoari galdetu zion: nere aitak erail zaituan ala ez Jaungoikoaren izenean esazu.

Ilak lurpetik aterata erantzun zion: ez; enau zure aitak erail. Mirari ondoren ildakoa len bezelaxe geratu zan, eta San Antonioren aita azkatua.

Onura edo frutua

Geidea goseak badago jaten emaitzu; egañi bada baita edaten ere (1).

Boskañen Eguna

Maite-Damu-Otoitza (*102'ren orialdean*).

(1) Prov. 25.

Irakurkizuna

San Antonioren apaltasuna edo
humiltasuna.

Apaltasuna, San Antoniok dionez, onbide guztien gorde-lekua da, ta gurre santutasunaren oñarietako bat. Onen gañean jaso zuan bere santutasun-etxea; bere mirariak, egintza onak eta jakinduriak zabaldu zioten izen onaz ezpaizan arrotzen, gizona berez ezereza ta utsa dala bazekiar-da.

¡O Antoniotara! pekatua ta txarke-ria besterik eztezu, eta alaz-guztiz ere danak menderatu nairik zabilta, ta biotza arokeriz buiatua daukazu.

Gaurtik aurera Jaungoikoaren aurrean goiberatu zaite; bada ardoi begitxañez begiratzen badie ere, Santuak digunez, goiberatuai begi-erukitsuaz begiratzen badaki, eta *grazi* ugariak ematen dizkie. Egiz on-zalea zeran ala ez jezagutu nai al dezu?

Apala zeran ala ez begiratu ezazu; bada Jaungoiko-maitasuna, ta geidemaitasuna egintza guztien burua diran bezela, apaltasuna beren neurria da.

(Gogartu beza...).

Otoitza

¡O ene Jesus! Zuk eta zure jaraitza-
le zintzo Antonio doatsuak euki zenu-
ten apaltasunaren ondoan nere aro-
keria ikusirik, lotsaz bete-betea nago.
¡O Jesus! maite-maitekoñ! Txar-rako
arokeritit zaitu nazazu, eta nere adi-
mena argitu ezazu, nere ezereztasuna
ezaguturik, biztaldi onetan beti apal-
ki bizi nadin. San Antonioren eska-
riakatik eta nereakatik nere laguntza-
le izan zaite. Amen.

(Iru Aitagure. Agur Maria ta Gloria)

Ikasbidea

Ogeita sei urte zituan San Anto-
niok Agustindañetatik San Prantzis-
koren Anaidira aldatu zanean. Ordu-
rako ikaskizun guztien jabe zan, eta
idazti edo *liburu* deunak buruz artuak
zituan. Alaz-guiz-ere, Jaungoikoak
eratian edo *okazioan* ez jartzera, eza-
gutzen naikolan izango zan, ain apalki
ezkututzen zuan bere jakinduria. Ga-
rai arñtan *Forli*-uriko komentuan bizi
zan, eta ango praile-nagusiak, izkin-
tzetarako zer tankerakoa zan ikuste-

añen, itzalditxoa egiteko agindu zion, beti ixilik egoten zala-ta. Asi bazan, asi zan jura etoñial! Bere itzak ugolde batek dakarzkien ur biziak ziruditen. Bere izkintzari-otsa ordutik zabaldu zan mundu guztian. Aita San Prantziskok *Teologiako maixu* izendatu zuan eta IX'gañen Gregorio Aita Santuak *Eskritura Santuaren* kutxa deitu zion. Onela saritu zuan Jaungoikoak Santuaren apaltasuna.

Onura edo frutua

Apala izan zaite, bai aberastasunean, bai uritasunean. *Apalezten dana goraldua izango dala, dio Jesusek-eta* (1).

Seigañen Eguna

Maite-Damu-Otoitza. (102'ren orialdean)

Irakurkizuna

San Antonio Otoizalea

San Antoniok dionez animarentzat bear-biañezkoa da otoitza. Bera gabe ezin eman diteke oiñkada bat ere on-

(1) Math. 23.

bideetan, eta bere bitartez datorzkigu Jaunaren *graziak* eta laguntzak. Berak txiki-txikitatik otoitzerako zaletasunik aundiena agertu zuan, ain etsia zegoan gai onetan; eta zaletasun onek eraman zuan gogañketa goien-goienekora. Goiargiz eta gozotasunez ementxe betetzen zan bere anima, Santuak berak digunez.

Noiznai, otoitzean ari zanean, zorabidua ta seutsumen gabe geratzen zan, emen luñean Goiko atsegiñak gozartzen zituala. Bere jakituri aundia ta egiten zituan mirariak otoitzaren onurak zituan. Nai zuan guztia otoitzaz irixten zuan.

¡O Antoniotara! Zure otoitza oñen legoñra ta onura gutxikoa, zergatik dan ¿bai al dakizu?—Epela ta otza dalako eta askotan biotza pekatuz zikindua daukazulako. Oker ori zuzendu ezazu bada; zure otoitzak biotz garbiz egin itzazu; *fede* biziiaz, apalki, bero-bero, iraunpenaz eskatu ezazu, eta eskatzen dezuna iritxiko dezu. Noizbait Jaungoikoak zuk nai bezin laxter entzungo ezpalizuke ere, etzazu etsi, zure irabaziak geitzeko izango da-ta. Baiña gogoan euki ezazu otoitzik onena egintza onakin dijoana dala.

(Gogañtu beza...)

Otoitza

Zure aurrean auzpezturik ¡O nere Aita erukiora! *birtute* gabe nagoala aitortzen det. Otoitza zeruko ogasunen giltza bezela, ta arerioengandik aldezteko izkilu edo *arma* eman zenedan, eta nere nagitasunaz, ez baterako ta ez bezterako ez tet artu.

¡Ai, ene Jesus! San Antonioren otoi sutsua antzeztuaz bero-bero zugana natořkizu. Jauna lagun zadazu, nere malkoak legořtuak eta nere eskariak entzunak dirala ikusirik, igarle Santuakin esan dezadan: *Goraldua izanbedi beti-betiko Jaungoikoa, bere erukitasuna nigaudik aldendu eztualako* (1). Amen.

(Iru Aitagure, Agur Maria ta Gloria)

Ikasbidea

San Antoniok, 1227'ren urtean Asis urian egiten zan praile-batzař batera zijoala, gaua zala-ta, andre on baten etxean geratu bear izan zuan.

Apaltzen ari zirala, lagunari esku-

(1) Ps. 65.

tik erorita ardo-ontzia puskatu zitzaion. Ez estutu, esan zien etxeko andre onak, ez estutu; bian ardo geiago badaukat, eta berealaxe igoko det.

Jetxi zan ba kupeltegira, ta ardoa aterata igo zan gora: baiña ora; zipotza etzion ondo sartu nonbait eta kupel guztia lútera joan zitzaion. Andre gaxoaren estutasunak etziran txikiak bere senarak zer esango ote-zion bildúrez batez ere. Lagunak San Antoniori esan zion: andre gaxoaz eruki zaite, ta bere alde zerbait egizu. Santua bere burua bi eskuen artean artuta otoitzean asi zan, eta autsitako bonbila osotua, ta kupela beriz ardoz beteta geratu ziran; ain beroak eta eragileak izan bear zuan otoitz arek noski. Andreak pozaren pozez zer egin etzekian, eta Jaungoikoa goral-tzen etzan aspertzen. Otoitz onaren onura ona emen.

Onura edo frutua

Ondo da inoiz aspertu gabe beti otoi-egitea (1).

(1) S. Lucas. 18.

Zazpigarren Eguna

Maite-Damu-Otoitza (102'ren orialdean).

Irakurkizuna

San Antonio ildura-zalea

Anima garbi zaitzeko ildura edo *mortifikazioa* bezelakorik eztala, ondo etsirik zegoan San Antonio. Bere Aita San Prantziskok bezela, oretxegatik gogor-artzen zuan bere gorputza. Bere odola emateko biderik etzion zabaldu Jaungoikoak, ziñopatzia edo martirio-zalea bazan ere: baiña irabazi aundiko ziñopatzia etxeko egin-kizunetan arkitu zuan. Anaidiko araudiak edo *ereglak* agintzen dituan laztasunaz gañera, artzen zituan diziplinak, jazten zituan *zilizioak* eta egiten zituan barauak izugarriak ziran. Gau osoak malko mardulak zerizkiola otoitzean igarotzen zituan, eta noizbat etziten bazan ere, oitzat lur otza artzen zuan.

¡O Antoniotara! Zure Santu maitagarri ori bezela, ildura-zalea ¿ote-zera? Orenbeste pekatu eginda zure gorputza gogor artzen ¿ote-dezu? Ez nos-

ki. Zure gorputzari gogor begiratuko bazenio, bera apantzen etzenuke orenbeste denbora igaroko; berari egiten dizkazu palakoak gutxituko zenituke; zure begiai etzenioke ainbeste atsegiñ emango; dantza nastu ta jolas txarretatik atzeratuko ziñake.

Begira bada, munduakin bizi nairik Kristoren laztasunetan sartu nai ezpadezu, Zeruan Kristokin zer ikusirik eztezu izango. San Antonioren esakun au beti gogoan euki-ezazu: adimeneko ta gorputzeko ildurak onbiddeen ilobian sartzen dute gizon ona, izen onaren usai gozoz betetzen dutela.

(Gogartu beza...)

Otoitza

¡O ene Jesus! pekatari aundia izan banaiz ere, ilduraz eta laztasunaz zure aserea beratzen gutxi saiatu naiz. Malkoak begietan eta damua biotzean ditudala, nere oker guztiak gorotatzen ditut; eta aurerakoan nere sentsumenak eta gorputz ustelkor au obeto ilduratuko ditudala, agintzen dizut. San Antonioren laztasunagatik onbi-

de onen zaletasuna emaidazu aŕen, beste munduan zure aseŕearen zigora aŕtu eztezadan. ¡Jesus! ¡Jesus! pekatarri onetzaz eŕuki zaite. Amen.

(Iru Aitagure, Agur Maria ta Gloria).

Ikasbidea

1226'ren urtean, Prantzian, Bribe deritzaion urian, San Antoniok *komentu* bat egiteko agindu zuan. Anaidiko edeslari, Gonzaga ta Wadingok diotenez, *komentu* au laztasunerako inguruan leiz-zulo aundiak zitualako, *komentu* guztien aŕtean maitiena zuan.

Beste eginkizunak lagata, bere bakaraldiak ementxe egiten zituan: bere buruari ogia ta ur utsa ematen zion; aŕtzen zituan *dizipliñak* ikaragaŕiak ziran; eta gogaŕketan etzan aspertzen.

Bere otoitzaz zenbat anima bide onera ekaŕi zituan Jaungoikoak bakarrik daki. Oŕegatik diabruak ixtilu goŕiak ematen zizkan, eta bein bizia kentzeko jaŕi zitzaion.

Gizon beltz izugaŕi baten irudiz agerturik, lepotik aŕtuta aŕkaitz bate-tik bera botatzera zijoan; baiña San

Antoniok Ama Mariari deitu zion oizuan bezela «*¡O gloriosa Domina!*» esanaz, eta zerutar Éregin onek, diabruari atzaparetatik kenduta, eginkizun berean jaraitzeko indartua lagazuan.

Onura edo frutua

Ilduratu zuen gorpuzkiak, zuen egintzetan Jesusen bizitza atzaldudedin (1).

Zortzigarren Eguna

Maite-Damu-Otoitza. (*102'ren orialdean*).

Irakurkizuna

San Antonioren Garbitasuna.

Artean bost urte etzitian San Antoniok Ama Mariaren irudi eder baten aurrean garbitasuna zaitzeko zinitza-egin zuanean. Betikoaren jargoira ke usaiduna bezelaxe igo zan opa izan zan eskeintza ura. Eta, *Jau-na Zu zera nere zer guztia igarle*

(1) Ad Col. 3.

santuakin esanaz, bere adimeneko gogapenak, biotzeko ibilkunak eta eraspenak, Jaungoikoaren eskuetan jaří zítuan; eta garbitasunaren eta gaztaroaren etsaietatik aldentzeko, oraindik mutikoa zala *Komentu* batean sartu zan. Lili garbien artean bazkatzten dan Bildots garbiari, beríro antxe eskeñi zion bere garbitasuna. Gizgarbitasun au edo *birjintasuna* mendigañetako elur zuria bezela zaitu zuan biztaldi guztian. Salomon eregeak jakituriaz esan zuana, ongi esan zezaken azken orduetan: *maite nualako txikitatik bilatu nuan; emazteztat artu nuan eta bere maitale egin nintzan* (1) Gizona Aingeruen mañan jaítzen duan garbitasun ori ainbeste maite zualako, oretxegatik aurkezten zaigu lili zuri edera eskuetan duala.

¡O Antoniotara! Zu ere soñeko eder orez jantzia egon zían; baiña, ¿zer egin dezu orban gabe zaitu ta egimezez goraltzeko? ¿Zenbat lagun, zenbat leku, zenbat ibilera bilatzen ez ote-dituzu bera galtzeko. ¿Nola, non eta norekin ibiltzen dituzu zure gogapenak, begi ta esku oiek? ¡A! damu zaite, eta aitorketa edo *konfezio* on

(1) Sap. 8.

baten bidez zure orbanak garbiturik, aurerakoan garbitasun ori zaitzen alegindu zaite. Etzaite aztu biotzez garbiak eztiranak eztirala zeruan sartuko. *Biotz garbikoak dira zoriontsuak* (1).

(Gogañtu beza.....)

Otoitza

¡A Jauna! Griña txarai jaraitu dion zital au zure oñetan daukazu, San Antonio zure mirabe zintzoaren irabaziatatik, zure kontra egin ditudan okeren barkapen eske. ¡Bai Jauna, bai, mundudo uskeri ta arokeriak ezagutzeko, eta sentzumenen leunkeriai gogor-egiteko *grazia* emaidazu, zure aginduak beterik, biotz garbikoai eskeñirik daukazun zeru ederaren jabe egin nadin. Olaxe egizu bada ¡Jauna! eta nere bitarteko on San Antonioren esakuna beti gogoan eukiko dedala itz-ematen dizut: au da; zerurako zaltetasuna piztutzen duan urrezko aldreare biotzeko garbitasuna dala, eta zure atsegiñak beragan dauzkazula. Amen.

(Iru Aitagure Agur Maria ta Gloria).

(1) Math. 5.

Ikasbidea

Ain aundia zan San Antonioren garbitasuna, liliak ikututzen duan eskua usaintsu lagatzen duan bezelaxe, bere usai gozoa alde guztietara zabalitzen zala zirudin. Bein San Benitoren *Komentu* batean sartu beara izan zuan. *Komentu* artan lizunkeriararen zirrikak ezin eramane zituan praile bat bizi zan, eta Santuak lagunduko ziolakoan, uste osoz beragana joanda, bere laguntza eskatu zion, estu ta lañi zebilela-ta. Baita Santuak onu edo *konseju* onak eman ere.

Baiña etzan oretzaz bete; zerbait geiago nai zuan. Orduan barungo jantzia kendurik esan zion: tori ta jantzi ezazu; eta alaxe egin zuan. Eta etzuan geiago alako zirikarik nabaitu. Emen atzaldu zan San Antonioren garbitasuna itsaskora dala.

Onura edo frutua

Zure garbitasuna arixkuan jañi dezateken bide, leku ta lagunetatik igesegizu, eta Jesus eta bere Amaren babespean jañi zaite.

Bederatzigarren Eguna

Maite-Damu-Otoitza. (102'ren orialdean).

Irakurkizuna

San Antonioren eriotza.

¡Zein gozoa dan Jaunaren begietan Berakiko zintzoak izan diranen eriotza! Paduako miragileak dionez, onak pozez eta atsegiñez itxarotendu eriotza, emengo iluntasun ta uskerietatik, beste bizitzako argi zorionekora igarotzeko bidea bezela begiratzen du-ta. Onelaxe azkendu zuan bere biztaldia gure Santuak. Goi-maitasunaren su-garrik kendu zioten azken-arnesa, ez miñak, ez oñazeak.

Bere Maitaleak deitzen ziola ezaguturik, pozez eta alaitsu artu zituan elizakoak, eta bere gogoko erezerkia *¡O gloriosa Domina!* esanaz, Ama Mariari deituta, Jesus-Salbagileagan bi begiak jaírtzen zituala, Beronen eskuetan jaíri zuan bere anima. ¡Zorioneko eriotza!

Betiko atsegiñen asiera orixe izan zan.

¡O Antoniotara! Zuk ere zure bio-

tzeko Santu orien eriotza bezelakoa naiko zenuke noski? Baiña berak maite zuana ¿maite al dezu? Beronek egiten zuana egiten al dezu? Jaungoikoaren legeak eta zure bizikerak eskatzen dizutena egiten ote-dezu? Begira ba; gaur arte orrela izan ezpada, aurerakoan San Antoniori jaraitu zaiozu: emengo zorakeriak, jostaketak, aundikeriak eta, laga itzazu, eriotzako orduan onik eztizute egingo-ta. Diena aizeak eramango dizu.

(Gogañtu beza...)

Otoitza

¡O Jauna! Aitoritzen det nere bizitza ta eriotza zure eskuetan daudela. San Antonioren eriotz zoragarriagatik eskatzen dizut, eriotza txarretik ezezik bizikera txarretik ere zaitu nazazula, geienez eriotza txara bizikera txararen ondorena da-ta. Zure Seme-Jesusen eriotzagatik egizu, nere betikoa ez dedila izan, diabruak arokeriz inoiz eztezan esan, *bere kontra garaitzale irten naiz*. Nere eginkizun guttietan zure naia egiteko indara emaidazu, nere azken-aldietan San Anto-

niok euki zuan atsegin eta pozaren apurtxo bat nabaitu dezadan.

Amen.

Iru Aitagure Agur Maria ta Gloria).

Ikasbidea

1231'ngo. maiatzaren 30'an, San Antonio Padua, bere etxe edeñak, sugasti, baratza ta lorategiak begira zegoala, bere gorputza eukitzeaz etoriko zitzaion aunditasuna goi-argiz ezaguturik bere onesprenak era onetan eman zizkan uriari:

Zoriontsua zera Padua-uri edeña; zoriontsua zure aberastasun, etxe edeñ, lorategi usaintsu ta ibai gardeenakatik. Zoriontsuagoa ordea Jaungoikoak zuretzat gorderik daukan aintza edo *gloriagatik*. Bere lagunak zer esan nai zuan etzuten igeri; geroago ezagutu zuten. Andik amalau egunen buruan iltzan, eta umetxoak berez kalez-kale asi ziran esaten: ¡il da Santua! ¡il da Santua! Urtea baiño len aldareetan jarita zegoan; gorputza Paduan dago, eta an egiten dituan mirariakatik lurgañean dan uririk izendatuenetakoa da.

Onura edo frutua

Zure egintza guztietan oroitu zaite eriotzaz, eta eztezu iñoiz pekaturik egingo (1).

SAN ANTONIORI (2)

Agurá

¡O Españako izar edera, beartasunaren perla, jakintzaren Aita, garbitasun-eredua, Italiako Argia, egi-erakuslea, dagizkizun mirariakatik Paduako eguzki diztiatzalea, Antonio doatsua! Amen.

Edozein ongi irixteko San Antoniori

Otoitza

¡O Antonio zorionduna! Zure ontasun aitugaitzagatik eta Jaungoikoa-gandik artu zenuan almen aundiagatik, iritxi zadazu, a'ren, Jaun Beragandik (*izendatu bedi emen zer nai dan*) bere naiaren kontra ezpada beintzat,

(1) Ecl. 7.

(2) Guido Monfort Kardenalak egindako eresi-aurekoa da. (Antifona).

eta egizu zure bitartez orenbeste mirari egiten dituan Jaungoikoa beti gorraldu dezadala. Amen.

(Aitagurea, Agur Maria ta Gloria).

Garbitasuna irixteko

Otoitza

San Antonio garbi-garbia, zure aingeru-garbitasunagatik Aingeruakin, San Josekin, birjiñen Birjiña Maria-kin ta ibařetako Lirio-Jesukristokin kutunki jardutea merezi izan zenuana, begiratze erukitsu bat egiozu pekatari beartsu oni. Zure soñekoa ikutu utsaz garbitasunaren grazia aldatzen zenuan orek, nere anima ta gorputza onetsi itzazu zure bitartekotasun altsuaz: garbitu itzazu nere sentzumenak, nere adimena ta biotza, Aingeru-birtute onen kontra dagon edozein egite, gogorapen ta naikietatik alden-urik, birtute au zaitzen zintzo iraunda, garbitasunaren Amarentzat eta bere Seme-Jaungoikoarentzat atsegingarri izan nadin, ta Paraisoan sartu kutsu gabeko Bildots-Kristo-Jesusen aintzak abestu edo kantatzeko. Amen.

**Ileroko amairugaíren egunean
San Antoniori egiteko**

Oparia

1231'ngo. Garagañilaren 13'an iltzan Santua. Au dala-ta oso atsegin du, ta gogokoa zaio il bakoitzaren amairuan oneraspén berezia agertzea berari. Ondo izango da ba Antoniotaræk egun órétan bere Zaindariari zerbait geiago egitea. Meza Santua entzun beza, Jauna artu ere bai, albaldin badu beintzat, limonatxo bat egin beio beartsuari, ta Santuaren irudia-urèan elizan edo etxean esan.

Gurutze Santuaren...
Jesukristo nere Jauna.

(102'gaíren órìaldean).


Otoitza

Paduako San Antonio, nere Aita eztitsu ta goraltsua, Prantziskotar-Anaidiaren gloria, ta Ama-Eliz Katolikuaren argia, garbitasunean Aingeru, Aunditasunean goiaingerua, ta beste aingeru maíen doaiez apaindurik zaudena: nik zure mirabe apal onek agurik gozoena egiten dizut, Jaungoikoak zure anima apaintzeko eman zizkizun doai berarizkoen oroipenez, eta zure bitartez egin izan di-

ran ta egiten diran mirariakatik; eta guztiagatik eskerak egiten dizkiot azken gabe Irutasun Deun-deunari, ta zuri beriz nere animako gozamenik anudienak agertu. Zure ardurapean artu nazazu, nere eskariak erukiz entzunaz, eta zureakin batera Jaungoiko-erukitsuaren Jargoian aurkeztuaz, zure bitartez eskatzen dedana bereala iritxi dezadan. Diabruaren zareetatik zaitu nazazu, ta pekatutik ere bai, zoritxarrik aundiena bera da-ta. Jesusgandik iritxi zadazu anima garbiaren gozapena ta pakea; nere gaitzaldietan poztu nazazu, ta eriotz ordu izugarrian lagun egidazu, nere animaren bila ibiliko diran diabru amoratuak aienatuaz.

Azken arnasa eman ondoren nere anima artu ta gure Salbagile maite-maitekor Jesusen aurrean jañi ezazu: eskaiozu bere Nekaldi ta Eriotzagatik, eta zure irabaziakatik, zeruko gloria eman dezaidala, zurekin ta zerrutar guztiakin bere goi-aunditasuna beti-beti goratu dezadan. Bera da Aitarekin ta Espiritu Santuarekin eunki ta eunkietan bizi ta agintzen duan egiazko Jaungoiko-Gizona. Amen.

Erantzunkaria (55'garren orialdean)



GURUTZE-BIDE DEUNA

Meza Santuaren Ondoren oneraspenik Aundiena *Gurutze bideareu* oneraspena da; Ama Mariak berak erakutsia da, eta San Antoniok eta beste santuak oso gogokoa izan dute. Zuk ere aldezunean egizu ta baŕkapen oso asko irabaziko dituzu: bat zure alde ta besteak Garbitokiko Animen alde.

Baŕkapen auek irabazteko aski da Jesusen Nekaldia edo *Pasioa* gogaŕtzea ta gurutzetik guretzera, amalau egon aldiak egitea: jende asko dagolako ezin danean, naikoa da egonaldi bakoitzean zerbait gogaŕtu ta oinkada bat edo beste aldatzea. Emen jaŕtzen dizudan Gurutz-bide au Aita San Prantziskoren seme Portu-

Maurizioko Leonardo deunak italeraz idatzi zuanetik artua ta eratua da.

Aldare-nagusi-auñean

† *Gurutze Santuaren...*

Maite-damu-otoitza

Nere Jesus erukioña, nere Jaun ta Ontasun Guztia, gauz guztiak baiño geiago maite zaitut, eta azken gabe Ona ta Biotz-bera zeralako, Zuri ainbeste oker egiñaren damu naiz; ni pekatari onegatik egin zenuan neke-bidea gogañtuaz, orain egitera noan bide au eskeintzet dizut, eta emanda dauden barñapenak irabazteko asmoa det. Eta zure gogokoa bada bat nere ainimarentzat, eta gañerakoak Garbitokiko animen alde izan bitez. Amen.

Egonaldi bakoitza asi bedi esanaz:

V. Goratzen zaitugu Kristo ta denesten zaitugu.

R. Zure gurutzaz gizadia salbatu dezulako.



Lenengo Egonaldia.
Jesus ilgarí-etsia.


Otoitza

¡Nere Jesus maitea! ¡Nolako maitasun aundia dan zure ori! Ni bezelako eskergaiztokoagatik aztindua pranko ta ostikoak ta ukabilkoak artu dituzu; eta azkenik eriotzarik izugaríenaren epaia. Aski da au nere biotza zauritzeko, ta zure min-oñazeen sorpenak izan diran nere pekatuak gorotatzeko. Nere gaizkiak gorotatzen ditut bada, Jauna, auek egin izanaren damu naiz, eta neke-bide onetan enaiz aspeértuko esaten.

Nitzaz eruki zaitte Jesus, nitzaz eruki zaitte (1). Amen.

(Aitagurea, Agur Maria ta Gloria).

(1) *Miserere nostri. Doñe, miserere nostri.*



Bigarren Egonaldia.

Jesusi Gurutze aztuna artu erazoten diote.

Otoitza

Neri dagokit, ene Jesus, ez Zuri, neri baizik gurutze aztun ori. ¡A! zein aztuna dan nere pekatuz egin dizudan Gurutza. Nere pekatuak irabazi didaten gurutza artzeko indara emaidazu, Salbagile maite orek, Gurutzakin lantandurik bizita gero, zeruan Zurekin beti atseden nadin. Eskar edo *grazi* au iritxi arte Teresa doneakin esango det. *Nekaldu edo il, nekaldu edo il. Nitzaz eruki zaitte Jesus, nitzaz eruki zaitte. Amen.*

(Aitagurea, Agur Maria ta Gloria).



Irugañen Egonaldia.

Gurutzepean lenengo aldiz erortzen da Jesus.

Otoitza

¡Ene Salbatzaile maite-maitekora!
zure oñetan auzpezturik daukazu luř-
gañean dan pekataririk aundiena.
Zenbat aldiz gaiztakerizko leizera
amildu ote-det nere burua. Zure esku
altsua emaidazu ařen jaiki nadin, ta
eriotz aldian betiko zerua iritxi zada-
zu. *Nitzaz eruki zaitte, Jesus, nitzaz
eruki zaitte. Amen.*

(Aitagurea, Agur Maria ta Gloria).



Laugarren Egonaldia.

Gure Erosle Jesusek
bere Ama Deuna arkitzen du.

Otoitza

Mariaren Seme-Jaungoikoa! Nere Jesus maitearen Ama Deun-deuna! emen naukazute zuen aurrean auzpezturik. Zuen bular samurak erdibitu dituan ezpata zorotza pekatuz neronek egin dedala aitortzen det. Baiña egi-egiz damu naiz eta barkapena eskatzen dizutet. Nitzaz eruki zaite, Jesus: nitzaz eruki zaite, Ama erukioa. Amen.

(Aitagurea, Agur Maria ta Gloria)



Boskañen Egonaldia

Gure Salbagile Jesusi Gurutza eramaten laguntzeko, judańak Zyreneko gizon bat beartzen dute.

Otoitza

¡Ene Jesus maitekońa! Esker mila zuri, eguneroko gurutza artuta oñenbeste irabazpide ematen didazulako. Bizitza onetan gaizkiaren antza duan guztia gogo onez artu ta eramada gero egizu ańen zeruko aberastasunak irabazi ditzadala. *Nitzaz eruki zaitte, Jesus, nitzaz eruki zaitte. Amen.*

(Aitagurea, Agur Maria ta Gloria).



Seigáren Egonaldia.

Jesusen Arpegi odoldua Beronikak
zapi batez garbitzen du.

Otoitza

¡Ene Salbagile oñazetua! Ezarri
zaiozu áren zure arpegi deunaren iru-
dia nere biotzari, egunez eta gauez
beti zure nekeak gogoan ibilita, egin
ditudan oker izugarien damu izan
nadin. Onela bizitza onetan nere pe-
katuen damu-ogiaz burua indartuta,
Zeruan zure arpegi edera ikusteko at-
segiña izango det. *Nitzaz eruki zaitte,*
Jesus, nitzaz eruki zaitte. Amen.

(Aitagurea, Agur Maria ta Gloria.)



Zazpigarén Egonaldia.

**Gurutzepean Jesus bigarén aldiz
erortzen da.**

Otoitza

¡Nere Erosle Deun-deuna! Luñean erorita bazaude ere Alguztiduna zerala aitortzen det. Nere aundikeria, aundiustea ta buruaren zalekeria azpiratzako *Grazia* emaidazu añen, apala izanik ezetsiak eta txarñkeriak gogo onez arñtu ditzadan, ta onela zure erortze-nekeak arinduaz zeruko atsegiñetara igaro nadin. *Nitzaz eruki zaitte, Jesus, nitzaz eruki zaitte.* Amen.

(Aitagurea: Agur Maria ta Gloria)



Zoítzigaíren Egonaldia.

**Jesusek Jerusalemgo emakumien
nogaíak arintzen ditu.**

Otoitza

Nere Salbagile maite-maitekoía?
Oírenbeste oñazetan nigatik zaudela
ikusita ¿Zergatik ez ote da nere bio-
tza negaíez urtuko? Damu negaíak
emaizkidazu aíren, Jauna, emakume
aiekiko euki zenuan erukia iritxi de-
zadan. Eskatzen dizudan atsedean au
emaidazu bizitza onetan, Zuk nierukiz
begiratu ostian, eriotza igarota, Ze-
ruan ikusi zaitzadan. *Nitzaz eruki
zaitte, Jesus, nitzaz eruki zaitte. Amen.*

(Aitagurea. Aguí Maria ta Gloria).



Bederatzigaren Egonaldia.

**Jesus Gurutzepean irugarren aldiz
erortzen da.**

Otoitza

¡Zeru-lurak beatz batez darabilzkizun Jaun Alguztiduna! ¿Nork erori-erazo zaitu lurera indargabetua? Nik nere pekatuz, nik nere saritako erorpenaz erori-erazo zaitut, eta pekatutik pekatu ibilirik, Zuri atsekabea geitzen bizi izan naiz. Baiña nere utsegiteak aitortzen ditut, auek egiñaren damu naiz, ez berizteko asmoa badet, eta biotzez bein da mila aldiz esango dizut: pekaturik ez geiago. *Nitzaz eruki zaitte, Jesus, nitzaz eruki zaitte.* Amen.

(Aitagurea. Agur Maria ta Gloria).



Amaígaíren Egonaldia.

**Jesus-Eroslea erantzten dute,
ta beatzuna edaritzaz ematen diote.**

Otoitza

¡Nere Jesus nekaldua! ¡Nolako al-
dakuntza Zugan ikusten dedan ori!
Zu, Jauna, bilosik, odolez, zauriz,
oñazez beteta; ni beriz atsegiñez, us-
keriz ta pozez. Ez nabil ondo, Jauna,
ez nabil ondo. Egiazko bidea zeran
Oírek nere bizikera txaríau aldatzen
lagundu zadazu, auíerakoan zure Ne-
kaldiaren samiñtasunak gozartuta ze-
ruan Zurekin alkartu nadin. *Nitzaz
eruki zaite, Jesus, nitzaz eruki zaite.*
Amen.

(Aitagurea. Aguí Maria ta Gloria).



Amaikagañen Egonaldia.

Jesus Gurutz-egúean iltzez
joste dute.

Otoitza

¡Nigatik iltzez josia izan zeran Jesus erukioña! Zure maitasun ta bildurézko iltzeaz nere biotz au zauritu zadazu, eta zure esku ta oñak zauritu dituzten iltzeak nere pekatuak izan diran ezkerro, zure maitasuna ta bildurá nere griñak azpiratzeko bideak izan bitez, zurekin lur-gañean iltzatua bizita gero, Zurekin zeruko atsegiñetan *ere jabe* izatera eldu nadin. *Nitzaz eruki zaitte, Jesus, nitzaz eruki zaitte.* Amen.

(Aitagurea. Agur Maria ta Gloria).



Amabigaiñen Egonaldia

Gurutzean Jesus jasoten dute ta
Erosleak bere anima ematen du

Otoitza

¡Ene Erosle maite-maitekoña! Zuri bizia kendu dizuten irale gaiztoak nere pekatuak izan dirala aitortzen det. Baiña Gurutze oretan Zure etsaien bañkapena Zerori entzun ezkerro, ¡nolako indaia ta itxaropena nere biotzak artzen duan! Bañkapena erakusten badidazu, emen nago zure naia egiteko. Bai, nere Jesus; nere etsai guztiai bañkatzen diet, eriotzako orduan entzun dezadan: *gaur zeruan nere lagun izango zera. Nitzaz eruki zaitte, Jesus, nitzaz eruki zaitte. Amen.*

(Aitagurea. Agur Maria ta Gloria).



Amairugañen Egonaldia

Gurutzetik Salbagilea eratsi, ta bere
Amaren besoetan ipintzen dute

Otoitza

¡Martirien Andre kementsua! nola-ko atsekabezko itxasoz inguratua dagon zure biotz ori! Zuri laguntzeko diñ enaiz, nere pekatuakatik erdibitu du zure biotza atsekabezko ezpataketeta. Baiña, nere Ama, zure eruki ori nere alde erabiltzu, nere itxutasuna ezaguturik, pekatu egiñaren damu izan nadin, zure atsekabetan Zure lagun emen izan ezkerro, zeruan ere atsegiñetan zure lagun izango naiz. *Nitzaz eruki zaitte, Jesus, nitzaz eruki zaitte. Amen.*

Aigurea. Agur Maria ta ta Gloria).



Amalaugarén Egonaldia

**Jesusen Gorputz Deuna il-obian
sartzen dute**

Otoitza

¡Nere Jesus erukioña! Gurutz-bide onetan gogañtu dedan zure *Pasio* Deunaren bidez ekatzu, añen, nere azken-jakia zure Corputz Deuna izan dedila; nere azken- arnasa Gurutzean eman zenunakin bat-egin dedila: alako eran, sinismen biziāz, itxaromen sendoaz ta maitasun sutuaz Zugatik il, eta beti zurekin zeruan bizi nadin. *Nitzaz eruki zaitte, Jesus, nitzaz eruki zaitte. Amen.*

(Aitagurea. Agur Maria ta Gloria).

Azkenean naibada bost Aitagure, Agur Maria ta Gloria Jesusen bost zauriai.



AITA SAN JOSEREN

zazpi igandeak edo bederatziruena

Aita San Josenganako oneraspena sinisleetan oso zabaldua egonik, Ama Mariaren senar garbiari ta Jesusen Aita-ordekoari oneraspen sutua eztion Antonio-tarik eztakit izango ote-dan. Egunero

egiten dizkion otoitzaz gañera, uste det bere jaiegunak ospatuko dituala, zazpi igandeak edo bederatziruena aurrez egiñaz. Au dala-ta jaítzen ditut emen bañkapenez apaindutako **Zazpi naigabe ta atsegiñen**

OTOITZ AUEK

I.

¡O Aita Jose doatsua, Maria guztiz Donearen senar garbi-garbia! Zure Orban gabeko emaztea utzi ala ez, zer égin etzenikiala arkitu ziñanean, zure biotzeko atsekabe ta samintasuna aundia izan zan bezela, esan eziña zan zure atsegiña Jaungoiko-Semea Mariaren sabel garbian gizon egin zala aingeruak adierazo zizunean.

Zure naigabe ta atsegin onegatik, gure anima orain bizikera alaitsu batez, eta azken-atsekabetan Jesus eta Mariaren ondoan zuk bezela eriotza santu bat egiñez, alaitu ezazu aren.

Aitagurea, Agur Maria ta Gloria

II.

¡O zorioneko Aitalen Jose doatsua, danen artean Jaungoiko-Seme-Gizon-

duaren Aita-ordekotzat autua izan zina! Jesus-Aurá beartasunik aundie-nean jaiotzen ikusteak eman zizun atsekabea laxter aldatu zitzaizun Goi-ko alaitasunean, aingeruen abesti zoragañiak entzun eta gau eder áren *gloria* ikusiaz.

Zure naigabe eta atsegin onegatik eskatzen dizut, biztaldi onen ondoren aingeruen goraltzak entzuteko ta zeruko zoriona gozartzeko grazia iritxi zadazula.

Aitagurea, Agur María ta Gloria.

III.

¡O Jaungoikoaren legea beti zintzo bete izan dezun Jose doatsua! Erosle Aurak *Zirkunzizioan* ixuri zuan Odol balio aundikoak erdibitu zizun biotza, baiña Jesus-Izenak indartu zizun atsegiñez beterik.

Zure naigabe eta atsegiñ onegatik iguzu *grazia* bizitzan galbide guztiak gugandik aldendu ta Jesus Izen Deundeuna biotzean eta aboan degula pozez iltzeko.

Aitagurea, Agur María ta Gloria.

IV.

¡O gure Erospen-Eskutukietan *parte* artu zenuan Santu zintzo Jose doatsua! Simeonek Jesus eta Mariaz egin zuan iragarpenak il-larrietan jañi baziñuan ere, anima askoren salbazioa ta piztuera ortik etoriko zala bere aotik entzuteak Goiko atsegiñez bete ziñuan.

Zure naigabe ta atsegin onegatik artu gaitzazu Jesusen irabaziz eta Mariaren bitartez, *gloriaz* beterik berpiztuko diranen artean.

Aitagurea, Agur Maria ta Gloria.

V.

¡O Jaungoiko-Seme -Gizonduaren zaitzale ernea, ta bere uste guztiko bizi-laguna, Jose doatsua! ¡Zenbat buru-auste eramán bear ko zinituan Jaungoiko-Semeari jañaitu ta mirabetza egiteko, Egiptora iges-egin bear izan zenuanean batez-ere! ¡Baiña zenbat atsegin artuko zenuan Jaungoikoa Bera zurekin zegola, ta onen aurrean jaungoikoizun edo *idolo* guztiak lurre-ra zetozela ikustean!

Zure naigabe eta atsegin onegatik iritxi zaiguzu *grazia* gugandik infer-

nuko diabrua aldentzeko, erorbideetatik alde-egiten degula batez ere, gure biotzetatik lur gauzen zaletasun txar guztia aiendu dedin, eta Jesus eta Mariaren mirabetzan gure egunak igaroaz auentzat bakarrik bizita zorionez il gaitezen.

VI.

¡O lurreko Aingeru Jose zoriontsua, zeruko Eregea zure mendean ikusteko diñ izan zĩnana! Egiptotik biur-tzean zure atsegiña samindu bazuan ere Arkelaoren bildurak, Nazareten pozez beterik bizi izan zĩnan Aingeruaren esanaz bildur guztia botata!

Zure naigabe eta atsegin onegatik iritxi zaiguzu, bildur galgarrietatik onez aterata barungo pakea izan dezagula, eta Jesus eta Mariakin ondo bizi az berak il-larrietan lagundu dezaitela.

Aitagurea, Agur Maria ta Gloria.

VII.

¡O santutasun guztiaren ispilua, Jose zoriontsua! Oben gabe Jesus-Aura galdu zenuanean, iru egunez bere bila ibili bear izan zenuan, zure naiga-

bea aundiagoa izan zedin, alik pozarik aundienaz arkitu arte Elizan lege-gizonakin.

Zure naigabe ta asegin onegatik biotz-biotzez eskatzen dizugu, Jesus pekatu lariz beñere ez galtzeko *grazia* iritxi zaiguzula; eta baldin gure zoritxañez galduko bagenu, atsekaberik aundienakin bila joan gaitezela, adiskide arkitu dezagun, eriotzako orduan batez ere, zeruan Berakin atsedean egitera eldu gaitezzen, betitasun guztian zurekin Jaungoikoaren erukiak abesteko.

Aitagurea, Agur Maria ta Gloria.

Antiph. Ipse Jesus erat incipiens quasi annorum triginta ut putabatur Filius Joseph.

V. Ora pro nobis beate Joseph.

R. Ut digni efficiamur promissionibus Christi.

Oremus

Deus qui ineffabili providentia, beatum Joseph sanctissimæ Genitricis tuæ Sponsam eligere dignatus es:

præsta quæsumus, ut quam protectorem veneramur in terris, intercessorem habere mereamur in cœlis. Qui vivis et regnas in sæcula sæculorum.
R. Amen.

Euskeraz

Antitona. Jesusek ia ogeitamañ urte zituan eta Joserren semetzat zeukaten.

V. Otoi egizu gure alde Jose Santua.

R. Kristoren agintsariak irixteko diña izan gaitezten.

Otoitza.

Árdura arigariñ Jose doatsua zure Ama guztiz donearen senartzat autu zenuan Jaungoiko orek, egizu aren, luñean laguntzaletzat goratzen degun ori bera, zeruan bitarteko izan dezagula. Eunki ta eunkietan bizi ta agintari zerana. Amen.

Aurretik esan diteke «Jesukristo nere Jauna» *Gurutze Santuaren...*

eginda: baiña zazpi naigabe ta atsegiñen otoitzak bata bestearen ondoren esan bea' dira, 4' ren oarean esaten dan bezela.

Azkenean, ¡O Birjiña... boska'ren o'rialdean.

Oa'ak.

1. San Joseran zazpi naigabe ta atsegiñen oneraspena San Prantziskoren semeetatik dato'. San Josek berak bi praileri erakutsia da; eta oso egokia edozer *grazi* irixteko.

2. Zazpi igandeetan, igande bakoitzean ba'kapen osoa irabasten da. Baldintza auek bete bea' dira: au'rez ja'ri diran otoitzak egitea; egiazki damu-izanik aito'rtu ta Jaunartzea; elizen bati ikustaldi bat egin eta Aita Santuaren naierako zerbait otoi-egitea. Noznai egin ditezke. S. C. Ind. 1847'ngo. Otsai'laren 1'an.

3. Iraku'rtzen eztakitenak, eta elizan egiten eztiran lekuan bizi badira, au'rez esan dana eginda zazpi Aitagure, Agur' Maria ta Gloria esanik ba'kapen berak irabazten dituzte. Ibiden. 1847'ngo. epai'laren 22.

4. Otoitzak bata besteen ondoren esan bea' dira ezer ta'rtan ja'ri gabe.

(I. C. can 934).

5. Egunero edo ia egunero Jauna ar'tzen dutenak zo'rtzi eguneko aito'rketa ez egiñagatik, beste baldintzak beterik ba'kapenak irabazten dituzte. (Ib. can. 931).

6. Bařkapenok irabazteko^oaste bařuan egiten dan aitořketak balio du.

(Ib. can. 931).

7. Esanaz gañera, egunero zazpi otoi-tzak-egiten dituztenak irabazten dituzte: 100 eguneko bařk. zatikiak egunean bein.

300 egunekoak asteaskenetan eta bere jaiegunen bederatziuren aurretik egun bakoitzean.

Bařkapen osoa bi jaiegunetan, aitořtu ta Jauna ařtuta. vii'gařen Piok.

Eriotz ona irixteko

Eskariak

Oařa. Kristauak luřgañean duan egin-kizunik aundiena, esan diteke bakařa, Jaunaren mirabetzan bizi ta eriotz ona egiteko eratzea da. Au dala-ta gogoan erabili beař du beti eriotz ordua; etzaio iñori aztu beař usterik gutxienean il-la-řietan arkitu ditekela, ta ongi izango da ordurako beař diran graziak aures eska-tzea Jaungoikoari.

San Jose il-lařietan daudenen Zainda-ria dalako, onetxegatik jařtzen ditugu eskari oek Zazpi Igandean ondoren. 15 urtekin katoliku egin ta 18'nean santu utsaian iltzan protestante izandako neskatxa batek asmatuak dira. Egokien ego-kienak San Joserren bitartez Jesusen eřu-kiak guganatzeko. Egin bada aldian bein, zazpi igandeetan batez ere, denbora izan ezkerro beintzat, eta Jaunartze ondorean.

Ontasun uts-utsa zeran Jaungoiko ta Aita erukioŕa, Jesukristo nere Jau-na. Ementxe naukazu zure auŕean biotz apal ta damutuaz.—Nere azken-orduan ta bere ondoren etoŕiko zai-dan guztia zure eskuetan ipintzen det.

Nere oñak, indaŕ gabe geratuaz, luŕgain onetako bizi-aldiaren azkene-tan nagola adierazten didatenean: *Jesus biozpera, eruki zaitenitzaz.*

Nere eskuak ikaraz ta daŕdaraz, elduta daukaten Gurutzea estutu ezi-ñik oegañera erortzen uzten dutenean: *Jesus biozpera, eruki zaitenitzaz.*

Nere begiak, datoŕkidan eriotz-bil-duŕez kristal egin ta ia irtenik, beren begiratze erdi-ilak zugana zuzentzen dituztenean: *Jesus biozpera, eruki zaitenitzaz.*

Nere españ otz ta motelak zure izen gozoa azkenez esaten dutenean: *Jesus biozpera, eruki zaitenitzaz.*

Nere arpegi ori ta zurbilduak min emanda ingurukoak bilduŕez jartzen dituanean; eta nere buru-ileak eriotz-izerdiz zutik jaŕita, nere azkena uŕean dagola agertzen dutenean: *Jesus bioz-pera, eruki zaitenitzaz.*

Nere belarñiak gizon izketarako ixi-ta betidiraun osoan zorioneko edo zoritxaŕeko egingo nauen epaia en-

tzuteko iriki bear diranean: *Jesus biozpera, eruki zaite nitzaz.*

Nere irudimenak, irudipen bildur-gariz ikaratuta eriotz-estutasunak dakarzkidanean; eta nere gogamena, zure zuzentasun ta nere okeren oroipenaz zorabiatuta, zугanako itxaropena galdu nai didan infernuko etsaiakin burukan dabilenean: *Jesus biozpera, eruki zaite nitzaz.*

Nere biotza, gaxo ta miñez, makal ta estu, eriotz-bildurez kixkurtuta, bere salbazioko etsaiakin burukan nekatu ta eratsita dagonean: *Jesus biozpera, eruki zaite mitzaz.*

Nere azken-negar malkoak, desegingo naizen ezaupidez, ixurtzen ditudanean, artu, Jauna, opagai bigungaritzat, nere pekatuen ordanez il nadin: Eta ordu ikaragarri artan: *Jesus biozpera, eruki zaite nitzaz.*

Nere sentzumenak ilundurik, mundu guztia nere bigietatik iges dijoanean; eta iltuneko edo agoniako estutasun ta eriotz-larrietan antzika nabilenean: *Jesus biozpera, eruki zaite nitzaz.*

Nere biotzaren azken-arnasak anima gorputzetik ateratzeko beartzen dutenean, artu zaizkidazu, Jauna, zугana joateko gogoak; eta orduan:

Jesus biozpera, eruki zaite nitzaz.

Nere anima mundu ontatik betiko irtetzen danean, gorputza ori, otz, bizmen gabe utzita; beronen usteltzea zure Aunditasunari eskeñitako opagaitzat artu zadazu; eta ordu artan: *Jesus biozpera, eruki zaite nitzaz.*

Azkenik, nere anima zure aurrean agertu, ta zure Aunditasunaren argia ikusten dedanean ez, aeren, Zugandik bota; zure magal erukitsuan artu nazazu, Zure goraltzak betiko abestu edo kanta ditzadan, eta beti: *Jesus biozpera, eruki zaite nitzaz.*

Otoitza

Ilgari-etsia egon aeren, bere ordua ta unea ezkutatu dizkidazun, Jauna, egizu nere biztaldiko egun guztiak zuzentasun ta santutasunean igarorik, lur onetatik zure maitasunean irten nadila. Zurekin Espiritu Santuaren batasunean bizi ta agintzen duan Jesukrisko gure Jaunaren irabaziakatik. Amen.

Urengo otoitza bizitzan bein egiten dutenak, aitortu ta Jaunartuaz barkapen osoa irabazten dute. Pius X.

Otoitza

¡Ene Jaun ta Jaungoikoa! Gogo ta apaltasun oso-osoaz oraintxetik zure eskuetatik artzen det eman nai didazun edozein eriotza, bere estutasun, atsekabe ta min guztiakin.

San Antonioren Bakuntza On-ona

I.

Sorpena

San Antonioren Bakuntza Ona, San Prantziskoren Anaidiko Buru-nagusiak edo *Generalak* irasia da Erroman 1894-ngo. urtean.

II.

¿Zertarako?

Irutasun guztiz Santuari, Antonio don-tsuari Zeruan eta lufean egin dizkan ongiakatik eskerak agertzeko: sinistegabeen, judaeren, siniste-auslien eta Eliz-Amagandik iges-dabiltzanen onbiurtzea San Antonioren bitartez irixteko: pekatariak damu-bidera itzulita graziaren jabe egin ditezen: San Prantziskoren iru maletako seme-alabak, beren araudia ondo gordeta, zintzo bizi ditezen: eta bea-

tsuak eguneroko ogia arkitu dezaten, eta ondasunak edo izen ona galdu dituanak beñero eskuratu ditzan.

III.

Eginbeñak

1. Bakuntza dagoan lekuan norberak izena eman. 2. Egunero Irutasun guztiz Santuari iru Gloria Patri... esan ta San Antonioren *Erantzunkaria* (55'ren orialdean) au eztañienak *Aitagurea*, *Aguñ Maria ta Gloria*. 3. Limosnatxo bat beartsuari eman, San Antoniogandik grazien bat irixten dan bakoitzean. 4. Artutako grazien beñia eman Zuzenkariari. 5. San Antonio-egunean edo Zortziurēnean aitortu ta Jaunañtu.

IV.

Ongiak

1. Eñomako San Antonio-elizan asteartero esaten dan Meza bazkide bakoitzak beretzat izatea. 2. San Prantzisko-ren Anaidian egiten diran egintza on guztietan sartuak egotea. 3. Eriotzako orduan aitortu ta Jaunartuta, edo ori ezin bada, mingañez edo biotzez *Jesus* esanda bañkapen osoa. Beste bañkapen osoa Bakuntzan sartzen dan egunean edo urēngo igandean. Baita otzai aren 15'an, garagaññaren 13'an, eta Amairu asteañteak egiten diran bakoitzean ere. Bañkapen auek irabazteko Jaunañtzea, aitoñketa eta

elizari ikustaldi bat egitea beaŕekoak dira. Aita Santuaren naiarako zerbait otoi-egiñaz. 4. Zazpi urteko ta zazpi beŕogeiko baŕkapenak Bederatziuraren egun bakoitzean: 100 egunekoak, len aitatutako iru Gloriak esatean; eta beste 100 egunekoak *Bakuntzaren* naietarako zerbait otoi-egiten dan bakoitzean.

SAN ANTONIOREN OGIA

Beaŕtsuenzat

1. Jatoriz ezta oraingoa oneraspen edo debozio au. Santua il ostean laxter asi ziran sinisleak bere laguntza eske biztaldian ta il da gero ainbat maite zituan beaŕtsuentzat limosna bat egingo zutela aginduaz, baldin eskatzen ziotena irixten bazien. Baita San Antoniok limosnaren ordañez bere esku ongilea luzatu ere.

2. Beraz esan gezezake San Antonioren Ogiaren oneraspena era batean edo bestean ordutik datoŕkiguna dala. Baiña gaur iñoiz baño zabalduagoa dago, Tolongo denda atzean egiten ziran mirarien ondoren batez ere.

Eliz gutxi izango dira San Antonioren kutxatxorik gabe. Españan, Prantzian, Belgikan, Alemanian, Austrian, Italian, Amerika guztian ezagutua da Oneraspen au.

3. *¿Zertan dago ba oneraspen au?* San Antoniogandik zerbait iritxi nai duanak beaŕtsuen ogitarako edo eskeñi beio Santuari limosna bat. Zer nai duan idatzi be-

za papertxo batean, zer limosna emango duan ere bai (Nere Aita San Antonio onenbeste edo ainbeste emango dizut beartsuentzat onelako grazi irixten badidazu) ta eskaeretako kutxatxoan bota beza. Eskatutakoa irixtean, beste papertxo batean idatzi beza: Onenbeste ematen diot San Antoniori bere beartsuen ogitarako, onelako grazi iritxi didalako. Paper onetan bildu limosna ta beste kutxatxoan bota.

Kutxatxoen zaitzaleak aldian aldian begiratuko die ta diruakin dauden pape-rak aterako ditu bestean dauden eskaria-kin batera...

Limosna ematen danean esateko

Otoitza

Jaungoikoari gure eskariak aurkez-tuaz ongi dagokiguna irixten diguzun Miragile doatsua, beartsu guztien Ai-ta, ure tar-tean gizon zikotz baten bio-tza agertu zenuana, bearean dauden zoritxarekoen estutasunak ongitzeko artu zenuan biotz askaragatik, artu ezazu beartsuen onerako zure onetan esker onez lagatzen degun limosnatxo au. Bearean daudenen aringarri ta gu-re onerako izan bedi. Lagun egiezu aiei, ta guri ere bai, zure ongina i oi-tuakin beartasun aldikietan, ta geia-

go animakoetan, orain ta gure erio-
tzako orduan. Amen.

Oaña. Otoitz au Parocchi Kardenalak
egiña da, ta 100 eguneko bark. dauzka,
egunean bein. 13-VII-1896.

SAN ANTONIOK

Īero familiai egiten dien ikustaldia

—
Santuari egin bear zaion

AÑERA

Famili guztia San Antonioren irudi
aurean belaunikaturik batek esan beza.

Otoitza

¡Paduako Antonio doatsua! irudi
onetan oneraspenez ta pozez artzen
zaituan famili onetara ongi etoria izan
zaite. Baldin lurgañean bizi zĩñanean
eriz-eri ibiltzen baziñan, zure esku
ongilea luzatuta, mirariz gaxoak sen-
datu, bearitsuai lagun egin ta Kristo-
rentzak ezin zenbatu ala anima ira-
bazteko, orain zeruan Jaungoikoakin
atsegin dezun ezkerro, besoetan ain
kutunki ibili zenuan Jesus-Auragan-
din iritxi zaiguzu famili onetako da-
noi ta bakoitzari bear degun grazia,

pakean ta Jaungoikoaren bildur santuan bizi gaitezten, ta bere aginduak ta anai-maitasuna gorde ditzagun, biotz guztiak baturik odolez baiño obeto Jesusen maitasunez.

Emaiezu familiko gurasoai bata besteaganako zintzotasuna ta biotzen alkaritasuna; beren gazi-gezetan Jaungoikoagana zuzentzeko gogo sutua; beren semeak ikasbide onaz ondo azitzeko grazia, Sakramentu Santu ta beste eginkizun onen bitartez zeru-bidean zuzentzen dituztela.

Eman ¡O Santu Biotz-bera! semeai ta mirabeai nagusienganako mendetasuna; mundua, diabrua ta aragia azpiratzeko kemena, lagun gaiztoetatik eta Jaungoikoa naigabetzeko erorbideetatik aldenduaz.

Ainbeste palaku egiten dizkizun Jesus gure Eroslearen aurrean otoitz egizu gure alde, bere grazi ugarik famili onen gain ixuri ditzan ta etsaiak zare txarretan nastu ez gaitzaten.

Orobat egizu bizi-aldian ainbeste on-egin zizun Ama Maria Donearen aurrean, Zeruan obeto begiratzen dizu-ta, bere babespean bizirik Jaunaren adiskide il gaitezten, Jesus, Maria ta Jose, izen gozo auek espanñetan ditugula.

Egizu azkenik, O Antonio doatsua, ta famili onen bitartekoa, luéko Iru-tasun Jesus, Maria ta Joserén pakea ta birtuteak famili onetan izan dite-zela. Amen.

Oar'ak. Etxean egon bea' duan ogeita lau orduetan lanparatxo bat ja'riko zaio Santuari. Bere aurean Erosario Santua ta beste otoitzak egitea ondo da. Baita egun oretan Meza entzun ta Jauna artzea ere, guztiak ezpada familiako norbaitek; ta azken agura baiño len limosnatxoa kutxatxoan sartu.

SAN ANTONIORI

Azken-agura egiteko

Otoitza

¡O gure bitarteko Miragile Antonio doatsua! urengo ila arte naigabez lagatzen zaituan famili onen biotz-agurak artu itzazu. Etxe ontatik irten baiño len barka zaizkiguzu zure mirabetzan egin ditugun utsegiteak. Zure irudi eder' au badijoa, baiña gure maitasuna ta zugaran degun itxaropena ez da joango. Ementxe geratzen dira. Zure eskuetatik artu ditugun ongi ta graziakatik ondo etsita gaude zerutik diguzun maitasuna oso aun-

dia dala, ta agintzen dizugu gure jai-
era ere, olaxe aurerakoan aundiagoa
izango dala, ta bearean arkitzen ge-
ran guztian zure erukiaren ateak joko
ditugula. Jaungoikoagandik iritxi zaiz-
kazu bendizio guztiak famili oneri;
gure erabakietan buruzpide ona; za-
lantza edo dudetan argitasuna ta zu-
zenbidea: gorputzeko ta animako gal-
bideetatik iges-egiteko grazia.

Azkenik iritxi zaiguzu gure otoitze-
tan, lan ta nekeetan Nazaretko Fami-
li zorionduna, Jesus, Maria ta Jose
bezela Famili au izan dedila, auekin
zeruan agintari izan gaitezen. Amen.

Aitagurea, Agur Maria ta iru aldiz Glo-
ria, eta Erantzunkaria (55'ren orialdean).

Latinez nai bada.

Si quaeris miracula,
mors, error, calamitas,
daemon, lepra fugiunt,
aegri surgunt sani.

—
*Cedunt mare vincula;
membra resque perditas,
petunt et accipiunt
juvenes et cani.*

—
Pereunt pericula,
cessat et necessitas:
narrent hi qui sentiunt,
dicant Paduani.

Cedunt mare...
Gloria Patri et Filio
et Spiritui Sancto.

Cedunt mare...

V. Ora pro nobis, béate Antoni.

R. Ut digni efficiamur
promissionibus Christi

Oremus

Ecclésiám tuam, Deus, béati Antonii Confessoris tui commemoratio votiva lætíficet: ut spiritualibus semper muniatur auxiliis, et gaudiis pérfrui mereatur ætérnis. Per Christum Dominum nostrum. Amen.

(100 Eguneko bańk. egunean ta beste 100 iru Gloriakatik.

Kristauak buruz jakin beań dituan Otoitzak.

Esku-Liburu onetan bein baińo geiago aitatzen diran ezkeró Aitagurea, Agur Maria, Kredoa, Salvea, Jesukristo nere Jauna ta Ni pekataria, geikiz emen jartzén dira oraingo kristau-ikasbide edo dotrińak dakarzkienéz, lengo euskera mordoluan egińak utzita auek ikasi dítetzen.

Aita gurea, zeruetan zaudena, santifikatua izan bedi zure izena: betor

gugana zure éreinua: egin bedi zure borondatea zeruan bezela luñean ere. —Emaiguzu gaur gure egunoroko ogia: barka zazkiguzu gure zoñak, guk geren zordunai barkatzen diegun bezela: ez gaitzazu utzi tentazioan erortzen, baizikan libra gaitzazu gaitzetik. Amen.

Aguñ, Maria, graziaz betea: Jauna da zurekin: bedeinkatua zera zu andre guztien artean, eta bedeinkatua da zure sabelako frutua Jesus.

Santa Maria, Jaungoikoaren Ama, eregutuz ezazu gu pekatarioen alde orain eta gure eriotzeko orduan.

Amen.

Kredo. Sinisten det Jaungoiko Aita alguztiduna, zeru-luñen egilea, ta bere Seme bakañ Jesukristo gure Jauna, Espiritu Santuaren egitez sortu ta Andre Maria Birjiñagandik jaio zana, Pontzio Pilatoren mendean nekaldua, gurutzean iltzatua, ila ta obiratua izan zana, inpernuetara getxi ta irugarñen egunean ilen artetik piztu zana: zeruetara igo ta Aita Jaungoiko alguztidunaren eskui-aldeetik eseririk dagona: andik biziak eta ilak epaitzera

etoñiko dana. Sinisten det Espiritu Santua: Eliza Santu, Katolikua: Santuen alkartasuna: pekatuen barkamena: aragiaren piztuera, betiko bizitza. Amen.

Salvea 4'gañen orialdean dago.

Jesukristo, nere Jauna 102'nean.

Nik, pekatari onek, aitortzen diot alguztidun Jaungoikoari, Andre Maria beti-birjiñari, zoriondun Migel Goiaingeruari, zoriondun Juan Bautistari, Pedro ta Paulo Apostolo Doneai, Beste Done guztiai eta zuri, ene Aita, pekaturik asko egin dedala, nere eruz, nere eruz, nere eru aundiz. Oregatik eskatzen diot Andre Maria beti-birjiñari, zoriondun Migel Goiaingeruari, zoriondun Juan Bautistari, Pedro ta Paulo Apostolo Doneai, beste Done guztiai ta zuri, ene Aita, otoitz egiozutela nere alde Jaungoiko gure Jau-nari.

**Sinispén-Itxaropen-eta
Goimatasun-Otoitzak**

Sinispéna.

Azkengabe jakintsu ta egiaren iturí zéran Jaun aundi orék, gauza guztiak dazaguzkizu ta egi guztiak dakizkizu. Zu, nere Jaun ori, egizale ta egi utsa zeralako, biotzez sinisten eta mingañez aitortzen dituf zure Elizari agertu dizkiozun eta Ama Samur onek, nere osasunerako erakusten dizkidan siniskai guzti-guztiak: sinismen onetan bizi ta il nadin, arén, pizkortu, indartu ta sendotu ezazu. Amen.

Itxaropena

Nere Jaungoiko erukiof ori, alguztiduna ta zure eskeintzetan zintzo-zintzua zeralako, uste det zinez, Jesukristo zure Seme ta nere Jaunak neretzat irabazi zuan nere obenen barkapena ta zure Legeko aginduak betetzeko bear dedan laguntza emango didazula, eta uste betez itxaro det, zure Legeko agindu oiek betezkero betiko zorionera eramango nazula. Itxaropen onetan bizi ta il nadin, arén, Jaun ori lagun zakizkit. Amen.

Maitapena

On utsa ta osoro maitagaña zeran nere Jaungoiko ori, zerana zeralako, biotz-biotzez eta beste ezer baño maiteago zaitut, eta zure maiteagatik nere lagun urkoa ere nere burua bezela maite det. Ezin geiagoan garbai ta damu det nere maiteena zeran Jaun ori iraindu ta naigabetua. Emadazu, añen, nere orain arteko obenen barkapen osoa ta beñero obenik bein ere ez egiteko beñ dedan laguntza, eta eriotzeraño zure maitasun ezti-gozoan iraun dezadan, maite-gañez irazeki ta berotu zadazu nere biotz epel au. Amen.

Antoniotañen Elizkizunetarako Abestiak (1)

1. Agur dagizut.

Zeruko bide
T'egi berbera,
Neretzat zera
Nere Jesus.
Ilun nago ni,
Naiz aul bakara
Añen indara
Emaidazu.

Eske naukazu
Zure aurean
Zure atean
Naukazu bai.
Itxaropenez
Begira Zuri
Zure esku begi
Samuren zai.

2. Nere maitasunaren Bizmena

Nere Jabe zeran
Jesus maitea
Benaz nai det izan
Beti zurea.

Intz gozoa dute
Maite loreak
Zure Biotz ori
Maite nereak.

Nigandik ez añen
Iñoiz alde egin
Iñoiz, ene Jesus,
Galdu ez nadin,

3. Eruki zaitte

Ilun dagon biotz onen eguzki
Ezin ni Zu gabe nindeke bizi
(Bi aldiz)

(1) Prantziskotar Aita Arruti zanak egiñak. Musika Aita Garmendiarena. Donostian Erbiti j'ren etxean daude salgai.

Zurekin aberats
Naizela nago,
Poz iturburua
Zurekin dago.

Atoz maite zaitut
Atoz nigana,
¡Auxe da bakarik
Opa dedana!

4. ¡O zer zoriona!

Nigana dator Jesus
Nigana dator zerua;
Gañezka nere barua
Gañezka daukat pozez.

¡O Zorion ta atsegiña
Jaunak neretzat egiña!
Zurekin bat egitea da
Nik dedan nai guztia.

5. !Nere Jaungoikoa. Nere Jaungoikoa!

Jauna zu maitatu
Nairikan nago
Jauna, maitatu
Nai zaitut geiago.

Baldin eregaia
Nai badu suak
Zure maitasuna
Nere goguak.

—
Aren ase zazu
Nere egaia
Ur gozodun
Itur azken gabia

—
Zu gabe naiz miñez
Dagon gaxoa
Zurekin on guztiz
Betetakoa.

6. Jesus, il-lari nago

Biotza jaítzen
Dezuna alai
Ez det Zu baño
Besterik nai.

Itxasora dijoaz Ur guztiak Baita Jesusengana Nere usteak.	Zure oren baruan Jauna, sartu ¡Atsedetik ezin du Ark bilatu.
--	---

7. Agur Jesus maitea

Agur Jesus maitea Aldentzera noa Baña nere gogoa Emen usten det nik Ni nabilen lekuan Nerekin egon zaite Bada zu zera maite Dedana bakarik.	Agur Jesus maitea Nere naigabietan Gogoratuko detan Poza zerade zu; Emen gelditu aren Jesus maite nazuna Beti laguntasuna Emango didazu
--	--

Antonio doatsuari

Ereserkia

¡O Jaungoikoaren albistaria
 Jesukristoren goi-gudaria
 Siniskitzaren aldezlaria
 Gure aurretik zu gidaria.

—

Sendotu zazu gauñ gaztedia
 Aldendu dezan gaiztakeria
 Animan piztu zeruko argia
 Ta biotzean maitasun garbia.

—


Lotua daukazu sokaz geria
 Eskuan damazu lili txuria
 Besoan musuka maitagarria
 Jesus-aurtxo txiki zoragarria.

—

Batu Antonio zure gaztedia
 Lotu zaiguzu sendo lokaria
 Griñak azpian eskuan lilia
 Biotz sutsuan Jesus maitatia.

—
 ¡O Jaungoikoaren albistaria
 Jesukristoreu goi-gudaria
 Siniskitzaren aldezlaria
 Gure aurretik zu gidaria.

Antonio Amundarain apaizak egiña.



JAUNGOIKOAREN
 ARANTZAZUKO BERE AMA DONEAREN
 ETA
 PADUAKO ANTONIO
 ZORIONDUNAREN GORALTZERAKO
 ALAXE.

ARKIBIDEA



Sañera I

GAIAK

Orrialdeak

I.	Antoniotara ta goiz-aratsetako otoitzak	1
II.	Arats-otoitzak	6
III.	Antoniotarak eta beste egin-kizun onak	8
IV.	Zazpi amañeko agurta Ama Mariari	10
V.	Antoniotara ta elizkizunak.	12
VI.	Gogarketa laburak,	13
VII.	Antoniotarak eta Sakramentu Santuak	25
VIII.	Aitortza edo Konfesioa	25
XI.	Eukaristia	28
X.	Meza Santua	34
IX.	Aldareko Sakramentu Deunari ikustaldia	47
XII.	San Antonioren Amairu Astearteak edo igandeak.	49
XIII.	Bederatziurera	101
XIV.	San Antoniori Agura	133

XV.	Edozein ongi irixteko San Antoniori otoitza.	133
XVI.	Garbitasuna irixteko otoitza	134
XVII.	Ileroko amairugañen egunean San Antoniori egiteko otoitza	135
XVIII.	Gurutze-Bide Deuna	137
XIX.	Aita San Joseren zazpi Igandeak.	153
XX.	Eriotz Ona irixteko eskariak.	161
XXI.	San Antonioren Bakuntza On-ona	165
XXII.	San Antonioren ogia	167
XXIII.	San Antoniok ilero familiai egiten dien ikustaldia.	169
XXIV.	Kristauak buruz jakin bear dituan otoitzak	173
XXV.	Antoniotaren Elizkizunetarako Abestiak.	178



